ELGOIBAR - 690. zenb. - XVII urtea - 2009-03-13

# B BARREN



## “Demasa izan da 26 metroko olatua neurtzea!”

**Ernesto Villarino, ozeanografoa**

GE

grupo eibar

inmobiliario

Jose M. Sert plaza, 10 behea
20018 Donostia
Tel.: 943 316 611
Faxa: 943 316 098

San Frantzisko, 44
20870 Elgoibar
Tel.: 689 236 537

Iberdrolak aste honetan erretiratu ditu argi-dorreak Urruzuno auzoan. Dorreek gure lanak geldiarazi zituzten, behinik behin, lurra prestatzeko, han etxebizitza bloke berriak eraikiko baititugu.

Eraiki beharreko lekutik bertatik pasatzen zen argindar linea zaharra kendu ondoren, lurberdinketari heltzeko aukera dugu sustatzaileok, eta zeregin hori amaitzear dago.

Izan ere, 100.000 metro kubiko lur mugituta zeuden, jakingo duzuen moduan. Hori dela eta, gainontzeko lanak amaitzeko “oso denbora gutxi” behar izango da.

Lau blokeetako lehenengoa eraikitzeko baimena lortu eta lanak uda honetan bertan hastea espero du GRUPO EIBAR taldeak.

Sustapen libreko 124 etxebizitza aurreikusi ditu GRUPO EIBAR taldearen ekimenak, lau bloketan banatuta.

Pozik gaude proiektuarekin, kalitate-prezio erlazioa kontuan hartuta, merkatuko obra berririk onena da DEBABARRENEAN, gaur egun.

Oso prezio konpetitiboak dira (bi logela, 171.000 euro; hiru logela, 194.000 euro). Gaur egungo interes tipoak kontuan hartuta, kuotak alokairu bat baino merkeagoak izan litezke.

Esate baterako: 171.000 euro x 35 urte = 706,71 euro hilean.

Horrez gain, proiektuak pasabide bat egitea aurreikusten du, igogailu panoramiko eta guzti, urbanizazio berria Elgoibarko zentruarekin lotzeko. Era berean, 12.000 metro koadroko parke handia egitea aurreikusi du, Melitongo pasagunetik Albitxurantz, trenbidearen tunelera arte.

GRUPO EIBAR taldeak gestio departamentua jarri du doan, finantzaketa arloan aholkuak emateko eta etxebizitza eros dezazun.



*194.000€ ko 3 gelako etxebizitza*

# Alex

Sei hillabete pasatu dira elkar ezagutu gendunetik, urte erdi jada, rubio!!! Ondiok goguan daukat egun hura. Opor osteko lehenengo eguna zan, zure begi urdiñak parez-pare euki nittuan ordu erdiz, zerbaitt esan nahixan baina eziñian. Komunikazio eza. Hori da gure zailttasuna. Komunikaziuak, edonola gauzatzen dala ere, ematen digu gizaki garan aldetik geure burua hezitzeko aukeria. Garapen horren baittan, emozio harreman edo gizarte maillako alderdixak ezezik alderdi intelektualak ere sartzen dira. Komunikaziuak ematen digu ikasteko eta pentsaera eta gaitasun sinbolikua garatzeko bidia. Baina nik behintzat argi daukat, komunikatzia ez da hitz egittia bakarrik, hitz egin leike ezer ez komunikatu gabe.

Hitzik gabeko komunikazioa erabiltzen dogu Alexek eta biok. Zeinuen hizkuntza da gure komunikatzeko tresna. Beste era batera esanda, pertsona gorrek erabiltzen duten hizkuntza. Baina Alexek entzumen mailla bikaina dauka, bai noski, berak nahi dabana eta nahi dabanian oso ondo entzuten dau.

Alex, lau urte zenduzenian elkar ezagutu gendunian eta jada beste kandelatxo bat piztu bihar izan dogu aurten!! Zure gelakide Anek berezixa zerala diño, eta horrela da, maittia, zu berezixa zera. Baina argi daukat, gizarte honetan danok gera berezixak. Neurri batian edo bestian, baina berezixak.

Alex, bost urteko ume autista da. Bazenkixen jaiotzen diran milla umetatik lauk jasaten dabela sindrome hori?? Hala da. Estatistikek diñue autismuaren sindromia jaiotze gaixotasun bat dala. Aditu batzuk diñue autismua 5 eta 15 kromosomekin erlazionatzen dala. Gaur egunera arte teoria hónek ez dira ontzat hartu; beraz, ezin dogu konkretuki jakin horren jatorrixa. Autismua komunikaziua eta erlazio sozialak zailtzen dittuan sindromia da. Hau da Alexen kasua. Komunikazioari stop. Baiña lortuko dogu, ekainera arte bide luzia dakagu ta.

Patxo handi bi Elgoibartik Bilbora, laztana.

Ekiñe Alkorta



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Zure gelakide Anek berezixa zerala diño, eta horrela da, maittia, zu berezixa zera”**

Elgoibarko berri izateko beste modu bat



Egin klik eta ikusiko duzu

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

# ERNESTO VILLARINO

OZEANOGRAFOA

## “Itsas biologia dut pasio, eta horrek bultzatu nau hainbeste bidaiatzera”



**Ernesto Villarino 27 urteko elgoibartarrak Santanderko Ozeanografia Institutuan egiten du lan. Doktoretza beka bati esker alga toxikoak aztertzen ari da, baina zentroan beste lan batzuk ere egiten ditu. Bere lantaldeak neurtu zuen 26,13 metroko olatua urtarrilaren 24ko goizaldean. Ozeanografoa da Villarino, eta egunero esku artean edukitzen dituen datuen ondorioz, arduratuta dago klima berotzearekin. Neurriak hartzea beharrezkoa dela uste du, nahiz eta horrek kostu altua eduki. Eta, besteak beste, energia berriztagarrien aldeko apustua egiten du, aurrera begira etor daitezkeen ondorioak sahiesteko.**

**26,13 metroko olatua neurtu zenuten, baina zelan neurtzen dira olatuak?**
Sentsore bat dago kostatik 50 metro ingurura, eta 2.630 metrora ainguratuta daukagu buia ozeanografiko bat: Augusto Gonzalez de Linares deitzen da. Olatuaren altueraren herenaren portzentajea kalkulatzen du, eta datu horiek satelite bidez ordenagailu batean prozesatzen dira. Minutuko 70 datu inguru emititzen ditu, baina informazio hori asko da denbora errealean transmititzeko. Beraz hilabetean behin-edo deskargatzen ditugu. Urtarrileko gau hartan asko astindu zuela bagenekien, baina ez hainbesterako izango zenik. Tamaina horretako olatu bat neurtzen genuen lehenengo aldia izan da, eta sorpresa izan da.

**Sentsorea ainguratuta eduki arren, olatuak bere lekutik atera zuen...**
Eguraldiak buia bere tokitik atera zuen, eta itsasoan noraezean geratu zen, eta handik lau egunera agertu zen Pasaiako portuan.

**Horrelako olatu batek sekulako hondamendia sor dezake kostako herrietan…**
Kontuan eduki behar da olatu hori Santanderko kostatik 20 miliatara neurtu zela, eta hori ez da kostara iristen: olatu luze-luze bat da, eta handia da, baina ez da apurtzen. Ez da Deban ikusten diren olatuak bezalakoa. Hala ere, etorkizunean kostaldeko segurtasuna indartu beharko dela uste dut. Beste irakurketa bat ere egin daiteke, izan ere, aurrera begira, energia eolikoa bezala aprobetxatu ahal izango da-eta.

**Zerk eragin du olatu handi hori?**
Uste dugu egun horietan izandako haize etengabearen ondorioa izan dela. Egun horietan 80 km/h-ko haizeak egon ziren. Ez zen izan haize bolada bakar bat. Eta horrekin batera, 980 milibareko presioak ere zerikusi handia eduki zuen. Guzti horren ondorioz sortu zen ziklogenesia.

**Hedabideetan asko entzun zen ziklogenesiak etorri behar zuela.**
Normala da. Iberiar Penintsula izateko olatu handia da. 70eko hamarkadatik honako datuak ditugu, eta ez dugu inoiz halakorik ikusi; eta zer pentsa ematen du. Horrelako olatuek Irlandako kostaldea astintzen dute depresioa hantxe sortzen zelako. Bagenekien zerbait etorriko zela, baina ez hain handia izango zenik; demasekoa izan zen datua.

**Doktoretza beka batekin ari zara lanean Santanderren. Zein da zure lana?**
Nire estudioarenfuntsa cyanobacteria bloom toxikoak eta gertaera horiek kontrolatzen dituzten faktoreen ikerketa egitea da. Itsaso Baltikoan dauden alga toxikoen inguruko ikerketa da azken batean, eta itsasontzi bidezko datuekin egiten dut. Helsinkitik Travemundera doan itsasontziari esker astean bitan *in situ* neurtzen ditugu parametro biologikoak eta fisikoak. Alga horiek, batez ere udan, tenperaturagatik eta argiagatik itsaso azalera igotzen dira, oso baldintza egokiak dira, gainera. Neguko eguraldi txarrak ur zutabeak nahasten ditu, eta udaberria heldu ahala, goiko ur kapa estratifikatzen joaten da, eta alga horiek ur azalean egoteko baldintza egokiak dira.

**Ze eragin izan ditzakete alga horiek?**
Alga horiek bereziki toxikoak dira, eta horregatik ikertzen ditut. Moluskuen eta arrainen sabelean sartzen dira, eta kantitate handian biltzen badira gizakion kontsumorako hilgarriak izan daitezke. Kasuak egon dira gainera. Turismoarengan ere eragin handia daukate alga horiek: hondartza asko itxi egin behar izan dituzte. Beraz, alga horiek aurreikustea oso garrantzitsua da: elur parteak-eta dauden bezala, alga horien etorreraren berri eduki dezakegu. Gainera, Itsaso Baltikoko urek ez dute mugimendu askorik, bertan isurtzen den zikinkeria guztiak algak gehiago hastea ekartzen du. Horrekin lotuta, klima beroagoa izateak uraren tenperatura igotzea dakar, eta ondorioz algak denboran lehenago agertzea dakar.

## “Begiak zabaldu, eta hemendik ehun urtera espezieen %40 desagertuko dela ikusi behar dugu”

### CO2AREN EMISIOAK EZ MURRIZTEAREN ONDORIOAK:

1. Glaziarrak urtzea: uholdeen gertaerak areagotu egingo dira, batez ere urtaro hezeetan. Epe laburrean ur erreserbak 1/6 jaitsiko dira.
2. CO2 kopurua igotzeak efektu positiboak eduki arren kultibo jakin batzuetan, CO2aren emisio altuak dakarren tenperatura altuak prezipitazio patroi alteratuak ekarriko lituzke, eta horrek produkzioa jaitsiko luke. Nekazaritza ekonomiaren motore duten herrialdeak (Afrikan adibidez) aldaketa klimatikoaren efektuak lehenago eta bortitzago pairatuko dituzte.
3. Itsas maila igotzea. 3ºCko igoera batek itsasoaren mailan igoera bortitza ekarriko du. Kostaldeko estrukturan babeserako ingeniaritzan inbertitu beharko da.
4. Muturreko fenomeno klimatologikoen gertaerak sarriagoak izango dira. Uraren zikloak areagotuko dira eta horrek uholdeak, lehorteak eta ekaitzak sarriago gertatzea eragingo du.
5. Desnutrizioa eta bektore gaixotasunak ugaltzea: malaria eta dengea, adibidez.
6. Itsasoaren maila igotzeak derrigorrezko migrazioa ekarriko du: kostaldetik barnealdera mugitu beharko dira herritarrak.
7. Ekosistemen sentikortasuna igoko da. Ozeanoen azidotzean eragin zuzena dauka CO2aren emisioen igotzeak. Itsas espezieen %15-40 artean desager daiteke.

### ZER EGIN HORI SAHIESTEKO?

1. Karbonoaren produkzioaren eskaera jaitsi.
2. Energia efizentzia areagotu.
3. Karbono maila baxua duten teknologietara aldatu.
4. Deforestazioa sahiesteko plan koste efektiboak eraiki.
5. Karbono maila baxua duten teknologietan gehiago ikertu.
6. Karbonoaren merkatua kontrolatu eta erregulatu.
7. Emisio stockaren trukea kontrolatu. Izan ere, herrialde batek erosi dezake beste herrialde bati dagokion emisioen kopurua.



**Leioan hasi zinen ikasketak egiten, eta Santanderren zaude gaur egun. Baina tartean munduan zehar ibili zara…**

Biologia ikasketak Leioan hasi nituen, eta gero A Coruñara joan nintzen Itsas Biologian espezializatzera. Bertan diru-laguntza bat lortu nuen Palermoko Unibertsitatera joateko, Erasmus bekarekin, itsasoari lotutako ikasgaiekin beste urtebete egoteko han. Gero, lizentziatura lortuta, Southanptonera joan nintzen ozeanografiako master bat egitera. Hango proiektuarekin Santanderko ozeanografia zentroan hasi nintzen kolaboratzen. Eta bertatik, beste diru-laguntza bat lortu nuen Helsinkira joateko itsaso Baltikoko monitorizazio sistema ezagutzera. Sistema horrekin lortutako datuek eta satelite bidez egunero lortzen ditugun irudiek nire tesiaren muina osatzen dute. Itsas biologia dut pasio, eta horrek bultzatu nau hainbeste bidaiatzera.

**Eta elgoibartarra izanda, zelan daukazu horrenbesteko lotura itsasoarekiko?**

Elgoibartik Debara kilometro gutxi daude, eta bertan dago itsasoa. Nahiz eta barnealdekoa izan, beti eduki dut pasio handia. Ez da edonor sartzen horrelako abentura batean, gaur egun ez delako erraza horrelako gai baten inguruan antolatzea zure bizimodua eta etorkizuna. Ni orain beka honekin nago, baina etorkizunean ez dakit zer egingo dudan.

**Algak ikertzeaz gain, egunero itsasoaren tenperatura ere begiratzen duzu egunero.**

Donostiako buian, uraren tenperatura eta gazitasuna egunero neurtzen dituen sentsorea dago. 1977tik 2007ra, hamarkadako 0,26 gradu igo da uraren azaleko tenperatura. Eta hori asko da. Industria iraultzaren ondorioz, tenperatura gradu bat igo da: garai hartan $CO_2$ isurketen kopurua 280 part per millionekoa zen, eta gaur egun 430 daukagu. Hemendik aurrera, horrela jarraituz gero, 2050erako tenperatura bi eta hiru gradu artean igo daiteke. Azken glaziazioan tenperatura media orain daukaguna baino bost gradu baxuagoa zen, eta igoera honekin kontuz ibili behar da.

**Ze gerta daiteke?**

Aldaketa klimatologikoak munduko ekonomia jipoitu dezake. Ondorio oso txarrak ekar ditzake: urraren eskuragarritasuna eta elikagaien ekoizpena jaitsi, osasun aldetik bektore diren gaixotasunak sarriago gertatzea, besteak beste. Konturatzen ari gara aldaketak gertatzen ari direla, eta garrantzitsua da orain hastea neurriak hartzen.

**Ze eragin eduki dezake neurriak ez hartzeak?**

Kontua da koste bat dakarrela neurriak hartzeak: baina hobeto da orain jartzea martxan, gero garestiagoa izango delako. Adituek diotenez, neurriak hartzen ez badira, horrek gutxienez Barne Produktu Gordinaren % 5-20 arteko kostua edukiko luke. Baina neurriak hartzen badira, hau da $CO_2$ isurketak 500 eta 550 artean mantenduz gero, BPG-PIBaren %1eko kostua ekarriko luke. Aldea, handia da beraz. Gainera, koste hori txikiagoa izango litzateke teknologia berriak sustatuz gero.

**Eta neurriak hartzeko prest daude?**

Horretarako egin zen Kiotoko protokoloa, eta ez dute herrialde guztiek sinatu: oraindik ez daukagu kontzientzia herrialde bat garatu daitekeela energia alternatiboak erabilita, eta erregai fosilen konbustioa jaitsita. Estatu Batuek ez dute sinatu, Txina eta India garapenean dauden herrialde modura daude katalogatuta, eta nahi beste isuri dezakete. Nazioarteko elkarlana beharko da, eta kontzientzia. Baina ez da erraza: herrialde askotan kulturagatik zaila da kontzientziatzea.

**Aldaketa klimatologikoa gertatzen ari da?**

Aldaketa klimatikoa egon edo ez, klima berotzen ari da, eta horrek eragin batzuk dauzka. Zer pentsa eman beharko luke. Gai garrantzitsua da eta denoi eragiten digu. Arazoa da, epe laburrera pentsatzen dugula, baina begiak ireki eta hemendik ehun urtera espezieen %40 desagertu egingo dela ikusi behar dugu. Oihanen galtzeak ere eragin handia dauka honetan: zuhaitzek ekiditen dituzten $CO_2$ emisioak garraioak isurtzen duena baino altuagoa da.

**Espezie batzuk hasi dira galtzen, antxoa adibidez.**

Maila ezberdinetako urak daude, eta maila ertainean dauden urak berotu egin dira azken urteotan. Gibraltarko itsas zintzurretik datozen urak dira, eta ur korronteengatik Kantauri isurialdera joaten dira. Urteko 0,02 gradu berotzen ari dira ur horiek, eta hori asko da. Horrek eragina dauka espezie pelagikoetan; antxoan, adibidez. Antxoa iparrera mugitzen ari dela igarri dugu, eta, gainera, arrantza industriek ez dute itsas esfortzua murrizten, beti ari dira arrantzan. Ikerketa bat egin genuen antxoaren egoera aztertzeko, eta ikusi genuen egon badagoela: baina arrantzatzen den kopuruarekin kontuz ibili behar da. Horrela jarraituz gero, antxoa galduko dugu. Horri irtenbidea emateko aukeratako bat babestutako itsas-area izendatzea da: horren bidez ikusi da errekuperazioa oso azkarra dela.

**Edurne Burgaña**

**Autoak eta motorrak ziztu bizian ibiltzen dira Arregitorre auzoan:** "Arregitorre auzoan bizi gara, eta aspaldian autoak eta motorrak abiadura handian ibiltzen direla konturatu gara. Orain dela gutxi susto handia eduki genuen, eta ez da lehenengo aldia izan. Ezbeharren bat gertatu aurretik, Udalari eskatu nahi nioke abiadura murrizteko neurriak hartzea".

**Txalo bero bat euskal inauterietako kalejira antolatu zutenei:** "Txalo bero bat eman nahi diegu euskal inauteria antolatu zuten Ikastolako lagunei. Aurten ere, sekulako kalejira antolatu zenuten, eta giro bikaina izan zen herriko kaleetan. Segi horrela".





**Eskerrik asko Eskubaloi Eskolaren aurkezpenean lagundu diguzuen guztioi:** "Joan zen domekan Sanlo Eskubaloi Taldearen eskola aurkeztu genuen, eta hori gauzatzen lagundu diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu: batetik, Udal eta kirol patronatu, Netto, Casa Astigarraga, Lauso, Zarauzko Orokieta Herri Eskola eta La Salle ikastetxeari; bestetik, kiroldegira etorri ziren guraso, seme-alaba eta lagun guztiei ere euren kolaborazioa eskertu nahi diegu. 170 lagun bildu ginen bazkaltzeko, eta giro bikainean pasatu genuen eguna. Horrek guztiak indarra ematen digu aurrera segitzeko".

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
*barren@elgoibarkoizarra.com* / 943-74 41 12

ESKERTZA



## BORJA UZURIAGA MENDIZABAL

*Laster arte ezpainetan*
*utzi gaituzu penetan*
*orain gure ametsetan*
*bizirik zaude benetan*
*zeruko izarretan*
*eta gure bihotzetan.*



*Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: ***barren@elgoibarkoizarra.com***.

**Mila esker**

Hamaika mila zatittan apurtuta daukaguzen bihotzetatik, milla esker. Milla esker gure onduan egotiagaittik, eta Borja zenbat maitte zenduen adieraztiagaittik.

Eskerrik asko San Migelko jai batzordekueri eta Kalamua elkarteko kidioi; eta baitta ere auzotar guztioi. Eskerrik asko Fagor-Arrasateko bazkide eta langillioi; lanian ere estimau zenduela eraskutiagaitxik. Eskerrik asko guraso eta anai-arreben lagun guztiei, gure onduan egon zeratelako eta ez gaittuzuelako bakarrik laga momento gogor hauetan. Eskerrik asko, Borjaren ikastolako eta kaleko lagun danori, bere naturaltasuna ulertu zenduelako eta halaxe maitte izan dozuelako, natural. Eskerrik asko, auzoko kuadrilla eta laguneri, zuek ere bere familixia zinatenteta. Batez ere eskerrak zuri, Asier, txiki-txikittatik beti alkarrekin, anaixak bezela ibili zerate-eta. Zuen afiziuek, Ispasterko itsasondo danak, etxe inguruko mendi sail guztiak bezain ondo ezagutzera eraman zinttuzten. Eskerrik asko, Jael, bertso zoragarri horregaittik, eta eskerrik asko baitta ere Kristina eta Olatzi, hirurok alkarrekin, nahiz eta oso zaila izan, bihar bezelako agurra eman zeniotelako. Momento hori ez dogu iñoiz ahaztuko. Eskerrik asko Haritz Dantza taldekueri, benetan blog zoragarri eta alaia egin dozuelako; bera bezalakotxia. Eskerrik asko famili-xako daneri, gure onduan egotiagaittik. Eta, nola ez, mila esker bihotz-bihotzetik, Idurre eta German. Zuek gabe ezin izango genittuzke egun gogor hauek aurrera eraman.

Egun hauetan asko eta asko izan zerate gure onduan egon zeratenak, eta barkatu norbait izentatzia ahiztu bajaku; baina ikaragarrixa izan da danon jarreria.

Gogoratu Borja beti izan dan modukua, alaixa, beti pozik, kantuan, dantzan, brometan.

**Borja Uzuriagaren guraso, anai-arreba eta ilobak**

**Amestu, gozatu, aldarrikatu eta izan aske!**

Elgoibarko Gazte Asanbladakook dinamika berri batekin gatoz zuengana. Argi dugu Elgoibarko gaztetxea herriko gazte zein pertsona guztien artean eraikitako gunea izatea nahi dugula.

Anitza eta zabala, horrek ekartzen duen aberastasuna neurrigabea baita, denon irrikak asetuko dituen espazio fisiko zein mental aske bat sortzeko proiektua dugu, honela askeago izateko aukera izango baitugu.

Horregatik, garrantzitsua iruditu zaigu denon iritzia entzun eta kontuan hartzea. Zelakoa izan beharko luke gaztetxeak zuen ustez? Zein ekintza, hitzaldi... egingo zenituzke? Zer eskaini beharko lioke gaztetxeak herriari? Zuen ideia, ilusio, faltan botatzen dituzuen gauzak, zer indartuko zenukete... Idatzi Mekanosan, Ize liburudendan, Arantxa eta Marianen frutadendan (merkatu plazan), Iriondo kiroldendan, Sugar gozoki-dendan, Laguarin okindegian, Txuri-beltzen, Iratxon, Lanbroan, Iriondon eta Gaztetxean dauden kutxetako papertxoetan.

Denon artean, Elgoibarri egokitutako gaztetxea eduki dezakegulako. Amestu, aldarrikatu, gozatu eta izan aske! Herri bat, Gaztetxe bat!

**Elgoibarko Gazte Asanblada**

**Gazteok lotu independentziara!**

Gazte martxa heltzear dago. Amaiurtik Donibane Garazira abiatuko gara gazte independentista guztiok, apirilaren 10etik 12ra.

Datorren asteazkenean, martxoaren 18an, Gazte Martxaren aurkezpena egingo dugu Elgoibarko Gaztetxean. Zuen zalantza guztiak argitzera gonbidatzen zaituztegu.

Hala ere, mendi martxa ez da izango hurrengo egunetan Euskal Herri independiente bat irudikatzeko daukagun aukera bakarra: martxoaren 28an Debabarreneko Gazte Eguna ospatuko dugu Elgoibarren. Egun osoko egitaraua antolatu dugu: salda eta txorizoa, herri bazkaria, jokoak, ekitaldia, manifa, kontzertuak...

Elgoibarko gazteok lotu independentziara!

**Elgoibarko gazte independentistak**


**Barren**

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Angel Ugarteburu

Pasa da hauteskundeen zeremoniala. Zenbakiak mahai gainean eta aulkiak zain. Hurrengo lau urteetako dantzaren doinua hasi dok. Zurrunbiloan sartuta diagok euskara ere, nahitanahiez.

Oraingoan neu natorkik, Andres, aholku edo iritzi eske; izan ere hamaika lan eta eskarmentu badok euskararen arloan. Maisu batengana lez hurbilduko nauk, bide batez neure kezka batzuk azalduz eta hire ikuspegiari bide emanez.

Beti harritu izan nau herri honen ordezkari politiko izan nahi duten askok, hainbeste urte pasatu diren arren, euskaraz duintasunez moldatzeko gaitasunik ez dutela ikusteak. Ez dituk, gero, bi edo hiru. Karreradunak dituk, gainera, eta beste hizkuntza batzuetan gai. Botoa eskatzera plazaratu behar eta, zelan ez juek ahalegin hori egin?

## “Apaingarri soila al joagu euskara?”

*Dendariak badaki euskaraz* dino esaera zaharrak. Bezeroa erakartzea diagokiok haren arreta lortu nahi duenari. Baina horretarako ere patal Euskal Herrian, salbuespenak salbuespen. Batzuek bozgoraz baztertzen juek euskara, baina eguneroko jardunean baztertzen dutenak ere asko eta asko dituk.

Pentsamendu hauek buruan, kalera irten eta azoka plazaren ondotik pasatzean ezkerretara begiratu eta han zuloan, zaborren artean eta kamioiz oztopatuta erdi irakurtzen joat: ElgoiBARREN. Edozeinek esango lukek leku osasuntsuago eta erosoagoa beharko lukeela astero euskara eskuan eta begietan jartzen digun lan taldeak. Zenbat horrelako egoera sinboliko! Apaingarri soila al joagu euskara? Guk geuk ez bajoagu geurea erabili, landu eta harro erakusten, zer eskatu besteei?



Andres Alberdi



Errazena egin duk: aholku eske hatorkit, alajainkoa! Eta hirea nondik nora zetorren irakurri dudanean, isilik egoteko gogoa sartu zaidak, lesser paser egiteko tentazioa… Baina, bistan zegok: ezin zioat ihes egin BARRENekin dugun konpromisoari.

Baina, hau zoritxarra, Angel: ez zeukaat erantzun osorik! Eta ez diat erantzun osorik, ez berez erantzun logikorik ez duelako gaiak, baizik-eta erantzunaren pisu erabakigarria ez doalako logikaren bidetik, ezpada postura militante kontziente batetik.

## “Euskarak ez dik irtenbiderik, burujabetasuna lortzen ez badugu”

Agintariek euskara ez menderatzeak harritzen hau: baita neu ere! Etsigarria duk benetan! Jende askok eguneroko jardunean euskara baztertzeak, ordea, ez naik batere harritzen. Erantzuna heuk eman duk heurean: Dendariak badaki euskaraz; alegia, txitxirioak jango badira, denera jarri beharra zeukak, baita tokian tokiko hizkuntzarik zailena ikastera ere. Eta gizarteari begira, horixe falta guri: euskara ez duk derrigorrezkoa Euskal Herrian bizitzeko! Min hartzen diagu, baina horixe egia.

Agintariena duk larria. Ezagutzen duk herririk (herri normalik/normalizaturik) bertako lehendakariak herriaren hizkuntza ez dakienik? Agian laster izango gaituk horretan ere Guinessen sartzen lehenak.

Muinetaraino sartu zigutek ideia gaizto bat: euskara “bigarren hizkuntza” izanda ere, ondo dago, gaztelania ere behar dugu eta (derrigorrean). Horrek, politikoki, hau esan nahi dik: Euskal Herria “autonomia gehien duen” herria izanik, ondo dago… Hor zegok kakoa.

Euskarak ez dik irtenbiderik (Unescok ezin ba horrela esan!), baldin eta burujabetasuna lortzen ez badugu, baldin eta euskara ez bada herriaren benetako eta ezinbesteko ikur bihurtzen.

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT

# ONGI ETORRI KORRIKA



*Elgoibarko AEK-ko kideak lekukoa eroaten, orain dela urte bi.*

**'Ongi Etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira' lema apirilaren 2an ekarriko du Korrika 16k Elgoibar eta Mendarora. Izan ere, Euskal Herrira bizi izatera etorri eta euskara bere egin dutenei omenaldia egin nahi dio aurten ekimen horrek. Valladolidetik Elgoibarrera etorritako Paula Herasek, esate baterako, argi izan du garrantzitsua dela euskara ikasi eta erabiltzea. Antolatzaileek, bestalde, herritarrei dei egin diete parte hartzeko bi urtetik behin egiten den euskararen aldeko ekimenean.**

**Oier Narbaiza**

AEK-ko kideak jo ta sua dihardute lanean, Korrika 16 dela eta. Euskararen aldeko ekimena Tuteran hasiko da martxoaren 26an, eta apirilaren 5ean Gasteizen amaituko da. Tartean, Euskal Herri osoa zeharkatuko du, eta Elgoibar eta Mendarotik apirilaren 2an pasatuko da.

Euskal Herrira etorri eta euskara bere egin duten kanpotarrei omenaldia egingo die aurten Korrikak. Elgoibarko AEK-ko Amaia Larrañagaren arabera, omenaldiak bi ardatz izango ditu: "Batetik, beraien guztien ekarpenagatik gure eskerrik zintzoena eman nahi diegu; bestetik, beraien guztien ekarpena eta konpromisoa azaleratu nahi dugu, kanpotik datozen familientzako eta bertan jaiotako eta hazitako familia ez euskaldunentzako eredu izan daitezen". Azken batean, kanpotar askok bereganatu izan dute euskara.

Baina Korrikaren mezuak urrutirago joan nahi du: norbanako zein instituzioei eskatuko dio "Korrikan azaleratuko den nahiari kasu egiteko". AEKren arabera, "erakunde eta administrazioek euskararen normalizazioa bultzatzea nahi dugu, euskaldunok leku guztietan (lantokian, kalean, etxean…), euskara erabiltzea nahi dugu, eta euskaldundu nahi dutenek euskara ikastea nahi dugu".

## Apirilaren 2an helduko da Korrika, 22:30ean Elgoibarrera eta 23:25ean Mendarora

Horrez gain, Korrikak helburu ekonomikoa ere badauka, AEKren bidez euskararen sustapena ahalik eta baldintzarik onenetan egiteko. Batez ere, Iparraldeko eta Nafarroako beharrei erantzun ahal izateko erabiliko dute jasotako dirua.

### Laguntzeko modu asko

Petoa jantzi eta Korrikarekin antxintxika egitea ekimenari laguntza emateko modu bat dela nabarmendu dute antolatzaileek. Dena den, laguntzeko beste aukera batzuk ere badaude: batetik, *Korrika-laguntzaile* txartela atera daiteke; bestetik, elkarte, talde edo erakundeek kilometroa erosteko aukera dute –dagoeneko batzuek baiezkoa eman dute–; azkenik, enpresa zein komertzioek diru-laguntza eman ahal izango dute.

Antolatzaileek hainbat ekintza prestatu dituzte Korrika dela eta. Martxoaren 26an, 21:30ean, Herriko Antzokian *Bidaia intimoak* dokumentala izango da ikusgai, Jon Maia zuzendaria edo protagonistetako bat bertan izango dira. Euskararen mundura hurbilduta-

ko lau pertsonaren historia eta istorioak kontatzen ditu filmak. Laurek ikasi zuten euskara, eta bidaia intimo horiek kontatzen dituzte.

Apirilaren 2an bertan Korrika Txikia izango da. Hiru ikastetxeetako 5 eta 12 urte bitarteko umeek parte hartuko dute.

Gero, gainera, Mauxitxa txaranga kalean izango da, 19:30etik aurrera. 20:00etan Plaza Txikiko arkupeetan afari-merienda antolatu dute, Mauxitxakoekin; jana norberak eroan beharko du, eta edaria AEK-ren kontu. Txarangak berriz ekingo dio 21:00etan, Korrika heldu arte. Ongietorrirako deialdia 22:15ean egin dute Txarridunaneko errotondan.

Azkarateko bide berritik etorriko da Korrika Elgoibarrera. Herriari buelta eman ondoren, Mendarorantz joko du.

## Mendaron ere Korrikaren alde

Mendaron, berriz, hasiak dira Korrika antolatzeko lanetan. Aurten Udalak hartu du bere gain zeregin hori, eta euskararen aldeko ekimenean parte hartzeko deia egin du. Martxoaren 28an *Bidaia intimoak* dokumentala eskainiko dute, San Agustin Kulturgunean izango da, 22:00etan.

Kilometroak erosteko Mendaroko udaletxera jotzeko eskatu dute antolatzaileek, edo 943 033 284 zenbakira deitzeko.

Bestalde, Mendaron Korrika Txikia apirilaren 3an egingo dute. 11:00etan irtengo da Ikastolatik, eta Udaletxeko plazan buelta egingo du. Mendarozabalgo plazatik, berriz itzuliko da ikastolara, eta han amaituko da. Egun horretan, ikastola barruan talde bakoitzak ospakizun berezia egingo du, kantu, olerki eta abarren bitartez.

Elgoibarrek Azkarateko tunelaren irteeran hartuko du lekukoa. San Antolinera heldutakoan, errepide zaharretik jarraituko du. Honako ibilbidea egingo du: Karkizano gaina, San Pedro kalea, Meliton, Pedro Muguruza, Ermuaranbideko errotonda, Bernardo Ezenarro, Pedro Migel Urruzuno, Nafarroa Plaza, Errosario kalea, Foruen Plaza, San Bartolome kalea, Nafarroa Plaza, Pedro Miguel Urruzuno, Bernardo Ezenarro, Ermuaranbideko errotonda, Pedro Muguruza, Meliton, San Pedro, Karkizano gaina, San Antolin, N634, Altzola. Mendaron, seguruenik txokolateriatik sartuko da. Kalea zeharkatu eta Debarantz joko du.



## PAULA HERAS
## Euskararen mundura etorritakoa

**Valladolidetik Euskal Herrira etorri eta euskararen munduan sartzea ezinbestekotzat jo zuen Paulak orain dela urte gutxi. Berba ondo egitea lortu du eta Elgoibarren euskaraz bizi da.**

**Noiz etorri zinen? Zer dela eta ekin zenion euskara ikasteari?**

Lehenengo Bilbora etorri nintzen, Unibertsitatean doktoratua egitera, 2006 inguruan. Urte osoa han egin nuen. Ordurako Iñaki [bikotekidea] ezagutzen nuen, eta hasia zitzaidan hitz batzuk irakasten. Gramatika bat oparitu zidan, eta, kuriositatea nuenez, begiratu egiten nuen. Bilbora iritsi nintzenean, zuzenean euskaltegian eman nuen izena. Egunero joaten nintzen bi orduz. Hasieran ezin duzu hitz egin, hitzakbaino ez direlako jakiten. Gero, euskaltegikoak joaten ginen zeozer hartzera, eta irakasleak esaten zigun “orain euskaraz egin behar dugu”. Ezin genuen ezer esan, bakarrik hitzak! Lehen urtea zaila izan zen. Pisukideak euskaldunak neuzkan, eta lagundu egiten zidaten, euskaraz eginez. Gero baserrira etorri nintzen eta Iñakik esan zidan “hemendik aurrera euskara hutsean hitz egingo dugu”. Horrela hobeto ikasten da.

**Erraza izan da zuretzat?**

Iñakik esan zidanean dena euskaraz egiteko, ilusioa neukan, baina pixkat zapuztuta gelditzen nintzen. Orduan lagunei edo amari deitu behar izaten nuen, lasaitzeko. Poliki izan da: lehenengo klasean… Eta interesa neukanez, etxean kantuen letrak eta begiratzen nituen. Hemengo lagunek ere asko lagundu didate. Ez da zail-zaila izan.

**Baina oso urte gutxitan ikasi duzu…**

Bai, baina oso interes handia neukan. Gainera zera pentsatzen nuen: “Hemen bizi nahi badut, hori egin behar dut, eta ahalik eta azkarren, lana bilatzeko eta lagunak egiteko.

**Zer ekarri dizu euskara ikasteak?**

Hizkuntza berri bat. Pozik nago. Alde batetik, batzuk esaten dute kosta egiten zaiela edo denborarik ez dutela. Baina nik azkenean, ikaslea nintzenez, aprobetxatu egin nituen bi ordu horiek euskaltegira joateko, eta erraza izan zen. Beste alde batetik, entzuten diot jendeari ez dakiela, eta umeekin hitz egiteko zailtasuna dute. Pena da. Ingalaterrara joanez gero, ingelesa ikasi behar da. Badakit hemen gaztelera denok dakitela, eta erraza izan zitekeen, baina errespetu kontua da. Eta integratzeko hobeto: orain euskara ez baneki, lanean gaizki, eta lagunekin gaizki.

**Korrikak zure modukoei omenaldia egin nahi die aurten.**

Ondo dago, beste batzuk gara-eta. Beti entzun dugu gehiago hemengoek eta euskara erabili behar dutela, baina kanpotik etorritakoak ere bagaude. Ingalaterrara joatea bezala da: ingelesa ikasi behar duzu. Hemengoek ez badute ikasten, polita da kanpokoek ikastea, ikus dezatela. Beharbada gogo gehiagorekin etortzen zara kanpotik, ni behintzat aurreiritzirik gabe etorri naiz.

**Euskaraz bizi zara, ezta?**

Harreman denak ditut euskaraz ia. Klasean umeekin, lanean, etxean eta lagunekin ere. Ezagutzen badut euskara ez dakien jendea erdaraz egiten dut.

**Korrikan parte hartuko duzu?**

Orain bi urte San Antolindik Mendarora joan ginen, eta orain berdin egingo dugu.

# Pertsonen berrikuntzari buruzko jardunaldiak egin dituzte Elgoibarko eta inguruko enpresetako ordezkariek

### Enpresa ertain eta txikietan berrikuntzak sustatzea da helburua




Elgoibar eta inguruko herrietako enpresa txiki eta ertainetako ordezkariak bildu zituen Gaitasun Pertsonalak Garatzen (GIGA) proiektuak eguaztenean Pleno Aretoan. Pertsonen berrikuntzari buruzko jardunaldiak izan zituzten mintzagai, eta Euskaltel, EITB eta Burdinola enpresetako kideek euren esperientziak elkar trukatu zituzten, gainontzeko enpresetako ordezkariekin. Moderatzaile batek gidatu zuen jardunaldia, eta etorkizunari begira enpresa berritzailea izatearen garrantzia nabarmendu zuten.

## Hiru ikastetxe proiektuan

Elgoibarko Mekak, IMHk eta Eibarko Armeria Eskolak jarri dute martxan GIGA proiektua, eta 2008ko abenduan egin zuten aurkezpena. Egitasmoaren helburua eskualdeko enpresa txiki eta ertainetan, baina bereziki txikienetan, berrikuntza sustatzea da. Horrez aparte, enpresa mundua eta Lanbide Heziketaren arteko lankidetza gunea izateko jaio zen proiektua. Hortaz, bien arteko elkarlana areagotuko da, ekoizpen prozesuak eta produktuak hobetzeko helburuarekin. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Industria Sailek lagundutako egitasmoa da, eta lau urterako iraupena izango du.

# Eskualdeko nagusientzako azoka aurkeztu du Debegesak



Debegesak *Exponagusi* ekimena jarri du martxan Debabarreneko nagusientzako baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa emateko asmoz. Astelehenean egin zuten proiektuaren aurkezpena Kultur Etxean, eta adineko jende asko gerturatu zen informazioa jasotzeko asmoz. Eibarko Astelena pilotalekuan egingo dute azoka, irailaren 29tik urriaren 1era bitartean, eta hiru urtetik behin errepikatzeko asmoa daukate. Azokan parte hartu nahi dutenek Debegesara deitu eta Itziar Elustondorekin jarri behar dute harremanetan: 943 820 110 telefonoan edo *nagusiak@debegesa.com* helbidean.

## Izena Antton Alberdi



Antton Alberdik bigarren saria eskuratu du CAF-Elhuyar sarietan, Ostaizka Aizpurua zarauztarrarekin elkarlanean. Zuhaitz enborretan hazten diren onddoak, ardagaiak, protagonista diren artikulu bati esker jaso dute saria. Zientzia-dibulgazioko lan horrekin zuhaitz enborretan hasten diren ardagaiek basoetako ekosistemetan duten garrantzia azpimarratu dute. Zuraren usteltzeari buruz dihardute artikuluan, eta horrek basoetako biodibertsitatean eta konplexutasunean duen eragin positiboaz.

## Berbia Lapurreta

Antton Alberdik bigarren saria eskuratu du CAF-Elhuyar sarietan, Ostaizka Aizpurua zarauztarrarekin elkarlanean. Zuhaitz enborretan hazten diren onddoak, ardagaiak, protagonista diren artikulu bati esker jaso dute saria. Zientzia-dibulgazioko lan horrekin zuhaitz enborretan hasten diren ardagaiek basoetako ekosistemetan duten garrantzia azpimarratu dute. Zuraren usteltzeari buruz dihardute artikuluan, eta horrek basoetako biodibertsitatean eta konplexutasunean duen eragin positiboaz.

## Lekua Urruzuno

Iberdrola enpresak Urruzuno auzoko argi-dorreak kendu ditu, eta Grupo Eibar enpresa berehala hasiko da berriz etxeak egiteko lanetan. 196 etxebizitza egingo dituzte guztira. Horietatik 124 libreak izango dira, eta 72 babes ofizialekoak. Urbanizazio berrian haurrentzako parke bat ere egingo dute, eta Gabriel Krutzelaegi kalearekin lotuko dute.



### Internet ikastaroak Plaza Handian

*Internet zuretzat* proiektuari esker, Interneteko hastapen ikastaroetan parte hartzeko aukera izango da martxoaren 16, 17 eta 18an Plaza Handian. Ikastaroak emateko hamalau ordenagailu dituen autobusa erabiliko dute. Ikastaroak goiz eta arratsaldez izango dira, eta bakoitzak bi orduko saioa jasoko du. Interesatuek herritarren arretarako bulegoan eman dezakete izena.

### Menpekotasun eta gaitasun gabeziari buruzko hitzalida

San Lazaro egoitzak eta Ongizate Sailak antolatuta, menpekotasunak dituzten pertsonei laguntzeko hitzaldia eskainiko du Amaia Bareak, Hurkoa fundazioko gizarte langileak. Ekitaldia hilaren 17an izango da, martitzenean, 19:00etan Kultur Etxeko sotoan.

### 1959koen kinto bazkaria

1959an jaiotako elgoibartarrak hasi dira 50. urteurreneko ospakizun ekitaldia antolatzen. Beraz, urte horretan jaiotakoei ekitaldian parte hartzeko deia egin diete. Interesatuek 639 760 959 (Mª Carmen) edo 656 766 563 (Javier Errasti) telefonoetara deitu, edo *elgoibar50@hotmail.com* helbidera idatzi dezakete.

### Merkatu plazako zozketa

Hilabete honetan Silvano Macho eta Juan Jose Isasti izan dira Merkatu Plazako zozketan sarituak. 60 euroko erosketa txeke bana jaso dute. Zorionak!



Haurdunaldia eteteko legedia aldatzeko proposamena egin du Espainiako Gobernuak.

# Zer iruditzen zaizu abortatzeko epea hamalau astera arte luzatzea?



**Iker Jausoro**
**39 urte, teknikoa**

Ondo ikusten dut gobernuak hartu duen erabakia. Legeaz abusatzeko arriskua egon daiteke, baina ez dut uste abortatzeko erabakia erraz hartzekoa denik, eta emakumeek ondo pentsatuta egingo dutela iruditzen zait. Emakumeentzako positiboa da.



**Felisa Iranzo**
**34 urte, kalitate arduraduna**

Ondo dago, baina batzutan abortuari buruz errazegi hitz egiten da. Abortatzeko erabakia hartzea gogorra da, eta horrek sortzen dituen ondorioak ere bai. Laugarren astean edo hamalaugarrenean abortatu, norberak erabaki beharko luke, lege barruan egon ala ez.



**Vanessa Gomez**
**29 urte, autonomoa**

Oso ondo, ni horren aldekoa naiz. Akaso norbaitek lege hori gaizki erabiliko du, baina ez dut uste gehiegikeriarik gertatuko denik. Edozein egoeratan ezin da ama izan, batzutan ezin da umerik ekarri mundura, eta emakumeak abortatzeko eskubidea eduki behar du.



**Isabel Tena**
**52 urte, zaintzailea**

Oso ondo, txalotzeko moduko jarrera iruditzen zait, eta, nire ustez, azkenaldian hartu duten erabikirik onena izan da. Gazte asko haurdun geratzen dira, eta askotan gurasoek hartu behar izaten dute umearen ardura. Abortua ezin da delitua izan.

---

I. URTEURRENA

## JESUS IRIONDO ELORZA



2008ko martxoaren 19an hil zen

*Nahiz eta gure artetik joan,*
*beti izango zaitugu gure bihotzean.*
*Gogorra da onartzea*
*gehiago ez zaitugula ikusiko*
*baina bizi garan artean*
*ez zaitugu ahaztuko.*

*I.urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 21ean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*





# EZKONTZAK 09

GEHIGARRI BEREZIA



Ezkonberrientzako Berezia
Zure bizitzako bidaia
Zatoz "Ezkonberrientzako Bidaiak eta Urteurrenak" izeneko gure katalogo bereziaren bila, eta aurkitu itzazu helmuga turistikorik eta oparirik onenak*
MALETA JOKO 1
20.000 TRAVEL PUNTU
12 ALDIZ INTERESIK GABE
%6ko BEHERAPEN ZUZENA zure bidaian
*Opariak, erosketaren zenbatekoaren arabera
SAN BARTOLOME, 11 • ELGOIBAR • TFNO: 943.74.46.56
EROSKI bidaiak
zurekin

# 8 aholku soinekoa aukeratzeko

Iritsi da hainbeste desiratutako eguna: amari, amaginarrebari eta lagunei abisatu, eta zoaz hiru edo lau dendatara ezkontza soinekoa probatzera

Aholku batzuk emango dizkizuegu soinekoaren proba ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta modurik egokienean aukeratzeko:

1. Telaren kolorea argitasunean ikustea oso garrantzitsua da, batez ere argi naturalez. Dendetako argi artifizialek ez dizute lagako soinekoaren benetako kolorea ikusten. Beraz, saiatu soinekoa leihotik gertu probatzen, argia ahalik eta naturalena izateko.

2. Zure amaren, amaginarrebaren eta lagunen laguntza izateak asko lagunduko dizu, eta oroigarri polita izango da. Zure laguntzaileek iritzi ia objektiboa emango dizute, eta guztion artean soinekorik egokiena aukeratuko duzue.

3. Soinekoak probatzean, saiatu argazkiren batzuk egiten, momentu horietako oroigarri bat izateko. Denda askotan, baina, debekatuta dago, eta beharbada ez dizute lagako. Segur aski, zure ametsetako soinekoa behin eta berriz ikusi nahi izango duzu, proben zain egon beharrean. Hala ere, kontuz gorde argazkia, eta ez dezala zure bikoteak ezustean topatu.

4. Ilea jasota eta solte duzula komeni da soinekoa probatzea, zein efektu egiten dizun ikusteko. Horrela, ure orrazkera aukeratzeko orduan erreferentzia izango duzu.

5. Soinekoaren probak bitxirik gabe egitea komeni da, ez badira behintzat ezkontzan eraman behar dituzunak. Kontuz ibili soinekoan kateatu gabe.

6. Ohitura dugu ispiluan aurrealdea bakarrik begiratzekoa, baina egun horretan, batez ere elizan, jendeak atzetik ikusiko zaitu, eta beharbada argazkilariak perfilez aterako dizkizu argazkiak. Beraz garrantzitsua da ispiluan alde guztietatik begiratzea. Garrantzitsua da soinekoaren proban mugitzea, esertzea, besoak altxatzea, makurtzea..., postura guztietan eroso zaudela egiaztatzeko.



7. Ez joan gehiegi makillatuta soinekoaren probara, zikindu egin dezakezu eta. Nahikoa da kolorete pixka bat eta begietan errimel pixka bat ematearekin.

8. Azken proban, saiatu soinekoa ezkontzako zapatekin probatzen, soinekoaren luzera egokia dela egiaztatzeko. Era berean, barruko arropa egokia eramango duzula ere begiratu beharko duzu. Laga pikardia eta lentzeria finak eztei-bidaiarako. Ezkontzaren egunean diskrezioa eta erosotasuna dira nagusi.

ecenarro
Barruko erropak • Umeentzako erropak
San Frantzisko, 10 Tel: 943 74 26 19

Imprenta Arrillaga
■ Ezkontza gonbidapenak ■ Bisita txartelak
■ Hileta oroigarriak ■ Kartelak - etiketak ■ e.a.
Zorionak eta zorte on!
Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87 e-posta: arrillagasl@euskalnet.net

AZALEA Edergintza
Mª Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 03 10
Helbidea: San Roke, 5 - 3. A - 20870 ELGOIBAR
GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizarizkoa) - Mikropigmentazioa



# Ile bilduen azken joerak

Orrazkera aukeratzea makillajearekin bat dator, nahiz eta topikoek esan aldarera ezin dela ile soltearekin edo motzarekin joan

▶ Lore apaingarriak: estilo erromantiko bat nahiago dutenentzat, mototsean lore naturalak estrategikoki jartzea polita da. Kameliak aukera polita dira.

▶ Aire naturala: tamaina erdiko adats ondulatuentzat egokia da lore txikitxoak jartzea, klipekin.

▶ Adats solteak: ile luzea ezkutatu nahi ez duenak partzialki jaso dezake, burua estaltzen duen gasa zuri bat jarriz, edo ile-motots bat eginez.





▶ Motza eta ukiturik gabe: iraupen luzeko bildu bat egin dezake ile motzarekin jarraitu nahi duenak. Soinekoaren tela berdineko tira fin baten bidez egokitu dezake.

▶ Eskultorikoa: orrazkera oso landua, ile-apaindegian orduak pasatzea axola ez zaienentzat. Benetako artelanak dira mototsok, metxoi zapal eta espazio irekiak izaten dituzte eta.

▶ Osagarri artistikoa: osagarriak du protagonismoa, eta ez mototsak. Ikusgarriak dira telazko filamentuekin apaindutako diademak, adarren erara.












# LASA
## JATETXEA



**250** LAGUNENTZAKO
JANGELA

*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK*
*ospatzeko toki bikain batean*










# Photon: eguzkia bezain osasungarria

Ezkontza egunaren aurretik hainbat tratamendu egin ohi dituzte emaztegaiek, eder eta pozaren pozez egon daitezen. Photon Domek eguzkiaren onura guztiak emango dizkizu

Japoniako zientzialariek energia infragorri berezi bat enkapsulatzea lortu dute. Berez, eguzkia bezain osasungarria da sistema berri hori eta Photon Dome izena jarri diote.

Ezkondu aurretik tratamendu ezin hobea da, pozaren pozez eta eder egoteko. Izan ere, gure osasun egoeran eragin zuzena dute inguruko energia ikusezinek, medikuntza bioenergetikoaren arabera.

Gure gorputzak energia infragorrien onura hartzen du eguzkia hartzean, eta Photon Domen bidez horixe lortzen dugu. Infragorriak bizi izateko behar-beharrezkoak dituzte izaki bizidun gehienek, mediku eta zientzialarien arabera.

Photonek ur molekulen aglomeratuak desegin egiten ditu gure gorputzean. Horrez gain, organismoko toxinak kanporatzen laguntzen du.










Mesede handia egiten dio gorputzari. Hona hemen onuretako batzuk:

- Azalean pilatutako toxinak kanporatzeko lagungarria da.
- Transpirazio handia sorrarazten du, oso tenperatura atseginak erabiliz, izerdiaren bidez zikinkeriak ateratzen ditu, kirola eta ur beroko bainuek ez bezala.
- Azido laktikoa oso denbora gutxian mehetzen du, oso modu errez eta erosoan, gainera.
- Gorputza eta azala hidratatzen du.
- Stressa arintzen du.
- Organismoa suspertzen du.

Photonek sortutako beroa modu sakonagoan sartzen da gorputzean barrena. Era horretan, estimulatu egiten ditu zelulak eta *tsubo*-ak (akupunturan erabilitako puntu energetikoa). Organismoaren egoera hobetu egiten du eta, ondorioz, ongizate fisikoari mesede egiten dio.

## Zertarako Photon teknologia?

- Bizitza kalitate hobea izateko.
- Elikagaien adulterazioa dela eta, kutsadura ezabatzeko.
- Metabolismoaren prozesuak hobetzeko.
- Azido laktikoa murrizteko, horrek eragiten baitu nekea.
- Umore aldaketak hobetzeko.
- Ohiko sistema terapeutikoei laguntzeko (errehabilitazioa, erreumatologia, masajea, akupuntura, kirol medikuntza...).
- Errendimendu fisiko eta psikikoa hobetu. Era berean, osasunari aurrea hartzeko balio du.

Kapsula hermetikoaren barruan tenperatura naturala dago. Tratamendua jasotzeko, gorputz guztia sartu behar da, burua izan ezik. Kapsulak tenperatura hartzen du eta indukzioz berotzen du gorputz barrua.



**Aupa Zen**

KIRURI
K
JATETXEA
Loiola Hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tel.: 943 81 56 08
Faxa: 943 15 03 62

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa
• Diseinu grafikoa • Offset litografia • Fotokonposizioa
• Publizitate diseinua • Era guztietako iragarki komertzialak
Sigma Ind., Xixilion 2, 2. (7.lokala) • Tel.:943 74 40 58
• Faxa: 943 74 41 78 • debape@debape.com • www.debape.com


10 PRESOTERAPIA SESIO
Argaltzeko tratamendua
(Murrizketa, talla, bolumena, zelulitisa,...)
Aurpegia garbitzeko aparatologia BERRIAREKIN: MIKRODERMOABRASIOA (orbanak gutxitu, orbainak, argitasun handiagoa, azalaren kalitate hobea) eta OXIGENOTERAPIAREKIN.
Ezkontza bezperan KABIAR tratamendua azala argitzeko eta gaztetzeko.
200€
GORPUTZEKO EXFOLIAZIOA
+ SAUNA
+ ERLAXAZIO MASAJEA
AURPEGIA GARBITZEA
(Tratamendu berria
Aurpegiko RADIOFREKUENTZIA tratamendu bat
3 PRESOTERAPIA sesio.
100€
Judith
EDERGINTZA

# Zure ezkontzako argazkiak

## Bikotekide gehienentzat ezkontzako argazkien albuma beharrezkoa da

Argazkiak dira, ezkontza bideoaz gain, modu bakarra egun bereziko momentu eta emozioak ez ahazteko. Horren ondorioz, guztiok nahi dugu argazkilariak lan dotore bat egitea, bizitza guztirako argazki eder batzuk izateko.

Hori dela eta, zenbait neurri hartu ditzakezu, argazkiaren kalitatea bermatzeko. Jakina, argazkiak plano egokienetatik aterako dituen argazkilari profesional bat bilatzea garrantzitsua da.

Hona hemen argazkilaria aukeratzerakoan eta argazkiak egiterakoan kontutan izan beharreko aholku batzuk:



▶ Argazkilariarekin berba egitean, eskatu beste ezkontza batzuetako argazki bildumak. Edozein argazkilarik, errekurtso gutxien duenak ere, osatu dezake aurretik duen argazkien bilduma.

▶ Ezkontza zehatz bateko argazki bilduma ikusitakoan, ohartu gaitezke argazkilariak bere lana ezagutzen duen ala ez. Aukerarik onena, oro har, gomendio pertsonal bat da. Zure lehengusuaren argazkiak atera zituena gustatu bazitzaizun, kontratatu ezazu.

▶ Argazkien momenturako denbora gorde. Zeremonia eta bazkariaren artean denbora eduki behar duzue, bestela argazkilaria presionatua sentitu daiteke, eta emaitzan eragina izan dezake.

▶ Kontratuan argi azaldu zer motatako argazkiak nahi dituzuen. Aurrez esan eskaera bereziren bat baduzu, edo familiako kide guztiekin argazkia nahi duzun, edo zure txakurrarekin.

▶ Kostu gehigarri eta zerbitzu bereziak idatziz azaldu daitezela eskatu. Zuribeltzezko argazkiek, handitze digitalek eta kopiek kostu osoa igo dezakete.

▶ Xehetasun guztiak zehaztatu egun batzuk lehenago. Argazkilariari azaldu zure etxera nola eta noiz joan behar duen, elizara edo bake-epaitegira zer ordutan joan behar duen eta bazkaritara zer ordutan joan behar duen. Inori ez zaio gustatzen argazkilaria behar den momentuan ez egotea. Hori guztia zehaztuz gero, lasaiago egongo zarete.

FOTO JAUJA
URKI 17 BEHEA EIBAR
TLF.943 202716 M. 688647344
WWW.FOTOJAUJA.COM




GADIFOT
ARGAZKILARITZA - BIDEOA
Iñaki Galparsoro
Komentukoa zig
Tfnoa. 943 17 06 71
Ermua-Bizkaia-
www.gadifot.es


estetikaalire
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 09:30 12:30 / 15:00 - 20:00 - Asteazkena: 09:30 - 19:00
Larunbata: 10:00 - 13:00 - Upaiz zaharra,1 beheo - Tel.: 943 531 636 - Elgoibar
EZKONBERRIENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA!
1. SPA manikura + aineko tratamendua + aurpegiko larruazalaren garbiketa
%10eko deskontuarekin.......................... 67'50 €
GORPUTZEKO TRATAMENDUETAN
ETA FOTODEPILAZIOAN ESPEZIALIZATUAK GAUDE.
KONTSULTA GAITZAZU.
2. SOLARIUM BONOA [10 sesio + oparia] + gorputzeko peeling-a + aurpegiko lifting-a
%10eko deskontuarekin....................... 115'20 €
3. Estresaren aurkako tratamendua + SPA manikura +
oinetako SPA tratamendua + SOLARIUM BONOA [10 sesio + oparia]
%10eko deskontuarekin......................... 118'80 €
TRATAMENTUAK: Aurpegi eta gorputz tratamenduak (zelulitisaren aurkakoak, erreduktoreak) - Ongizate tratamenduak - Masajeak -
Depilazio laserra, elektrikoa, argizarizkoa - Mikropigmentazioa - Manikura - Hanketako estetika - Solariuma - Medikuntza eta kirurgia estetikoa


ARNOPE NAVA
INPRIMATEGIAK
ARNOPE
Jose Mª Altzibar, 6 - II. Blokea
Telf. eta Faxa: 943 603 194
e-mail:arnope@terra.es - ✉56
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)
NAVA
Santa Ana, 44 - ✉ 208
Telf. eta Faxa: 943 744 451
e-mail:nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

# Nola planeatu eztei bidaia

Momentu batzuek ia perfektuak izan behar dute bizitzan, eztei bidaiarena esaterako.

Ezkongaiek une oro amets egiten duten momentua da eztei bidaia, bizitzan izango duten oroimenik politenetakoa izango da eta. Garrantzitsua ez da bidaia hiru, lau edo 40 egunekoa den. Garrantzitsuena da bidaia paregabea izan dadila. Horretarako, ordea, eztei bidaia aurretik antolatu behar da, denborarekin, xehetasun guztiak konpontzeko. Lehenengo egin beharrekoa da bikoteak bidaia egiteko zenbat diru duen eta zein lekutara joan nahi duen finkatzea. Ondoren, aurrekontuak, bidaia agentziak,... etorriko dira.

## NOLA PLANIFIKATU EZTEI BIDAIA

### Sei hilabete lehenago:

▶ Lekua aukeratutakoan, hegazkineko eta hoteleko erreserbak egin behar dira, bai bidaia agentzia baten bitartez edo norbere kabuz. Ez ahaztu erreserben baieztapeneko zenbaki guztiak apuntatzeaz.

▶ Pasaportea eta NAN eguneratu.

### Hiru hilabete lehenago:

▶ Erreserbak berriz baieztatu eta bisarekiko tramiteak konpondu. Zenbait bidai agentziak bisarekin egin beharreko tramiteaz arduratzen dira, eta zerbitzu horregatik gainordain bat kobratzen dute.

▶ Funtsezkoa da bidaia asegurua edukitzea: mediku asegurua, maletak galtzea, larrialdiak eta abarrak barne dituena. Batzuetan, nazioarteko kreditu txartelen bidez atera daiteke aseguru hori.

### Bi hilabete lehenago:

▶ Zerrenda bat egin bidaiarako beharrezkoak izango diren gauzekin: aspirinak, eguzkitako krema, betaurrekoak, argazki kamera... eta, zergatik ez, zure bikoteari sorpresa emateko zenbait elementu, hala nola, kandelak, masajeak egiteko olioa...

▶ Informatu herrialde horretan dauden aldaketekin, ordutegiekin, tenperaturekin, kulturekin, txertoekin...

### Hiru aste lehenago:

▶ Erreserbak ordaindu, hegazkineko txartelak eta bidaia agentziako ordainagiria jaso.

▶ Familiakoei hoteleko datuak lagatzea gomendagarria, hotelaren izena, helbidea eta telefonoa.

### Aurreko egunean:

▶ Lasaitu! Dena konponduta dago.


GORPUTZ – TRATAMENDUAK
- Andregaiarentzako tratamendu bereziak: edertasuna, karma eta lasaitze tratamenduak.
- Body depur plana (argaltzeko)
  3 saio: 1. zirkulaziorako
  2. argaltzeko
  3. Drainatzeko
- Algan-bildukina (yin + yang + erlaxantzailea)
- Txokolaterapia.
- Golden spa erritualak.
- Spa horoskopo tratamenduak.
- Masaje erlaxatzailea + aromaterapia + zurrustak.

MASAJEAK
- Kirol-masajea
- Kiromasajea
- Oin-erreflexologia
- Esku-drainatze linfatikoa

ATSEDEN
KIROMASAJEA
Upaiz Zaharra, 4 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

EDURNE GABILONDO (Tel.: 655 712 720)
ARGIÑE GABILONDO (Tel.: 656 711 878)

PIROCHE cosmétiques
GOLDEN PYRAMIDE

**JOSE ANTONIO**

ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30
Tel: 943 74 14 92

**ELENA**

ileapaindegia
depilazio elektrikoa

San Frantzisko, 49-1
Tel: 943 74 11 89

**DONNA**

Ileapaindegia-Edergintza

Pedro Muguruza, 13
Tel. 943 74 43 88

**AGURTZANE**

Ileapaindegia
Solariuma

LASER DEPILAZIOA!

Santa Ana, 18 - Tel. 943 74 18 64

**Amagoia**

ileapaindegia

Tel: 943 03 38 35
Mendarozabal, 4 behea
MENDARO

**IDAMA**

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Azpilgoeta, 14 ·
Tel. 943 75 51 01 · MENDARO

**Tximak**

ILEAPAINDEGIA
solariuma

Kalamua, 2 · Tel: 943 74 43 57

**Maria Urizar**

Ileapaindegia
Solariuma

Errosario, 9-1 · Tel. 943 74 44 89

**HAIR'S**

ILEAPAIN GI

San Bartolome, 6 behea
Tel: 617 988 130


ARAMBURU
BITXIDENDA
San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35


Idama
ileapaindegia
PROBA ITZAZU GURE ESTETIKA TRATAMENDUAK:
- Gelezko azazkalak.
- Zimurren kontrako Rosa Bulgaria aurpegi tratamendua.
- Itsaso hilaren buztinak aromaterapiarekin.
- Spa pedikura.
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
(sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26


ELGOIBAR
San Bartolome, 34-35 - Tel. 943 74 03 45


Kala
LORADENDA
San Frantzisko, 24
Tel. 943 744 516


KANTABRIA
Jatetxea
EZKONTZAK | BATAIOAK | JAUNARTZEAK
Arrate gaina, 4
279 posta-kutxa
20600 EIBAR
Tel.: 943 121 262
www.kantabriajatetxea.com
RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA



Tahe LASER SYSTEM

# AGURTZANE ILEAPAINDEGIA

| | S | A | I | O | A | K |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Fotodepilazioa | 1. | 2. | 3. | 4. | 5. | * |
| (Kontzeptua) | | | | | | |
| Besapeak | 63 € | 57 € | 51 € | 45 € | 40 € | 35 € |
| Bularrak | 35 € | 34 € | 33 € | 32 € | 30 € | 25 € |
| Iztondoak | 66 € | 61 € | 55 € | 50 € | 45 € | 39 € |
| Iztondo osoak | 79 € | 72 € | 66 € | 61 € | 55 € | 45 € |
| Bulartea | 58 € | 53 € | 49 € | 45 € | 42 € | 35 € |
| Ipurmasaila | 125 € | 117 € | 109 € | 100 € | 90 € | 70 € |
| Besoak | 159 € | 150 € | 141 € | 131 € | 120 € | 99 € |
| Emakumeen bizkarra | 195 € | 185 € | 171 € | 159 € | 149 € | 120 € |
| Gizonezkoen bizkarra | 195 € | 190 € | 185 € | 180 € | 175 € | 150 € |
| Emakumeen toraxa | 195 € | 185 € | 171 € | 159 € | 149 € | 120 € |
| Gizonezkoen toraxa | 195 € | 190 € | 185 € | 180 € | 175 € | 150 € |
| Zango osoak | 275 € | 259 € | 239 € | 219 € | 199 € | 149 € |
| Zango erdiak | 149 € | 143 € | 135 € | 127 € | 120 € | 99 € |
| Alba lerroa | 49 € | 47 € | 45 € | 43 € | 40 € | 35 € |
| Kokotea | 59 € | 55 € | 50 € | 46 € | 41 € | 35 € |
| Behe bizkarra | 97 € | 91 € | 85 € | 76 € | 69 € | 59 € |
| Pubisa | 68 € | 63 € | 58 € | 53 € | 47 € | 43 € |
| Pubisaren goikaldea | 22 € | 20 € | 19 € | 18 € | 16 € | 13 € |
| Oinak eta eskuak | 38 € | 33 € | 28 € | 24 € | 20 € | 15 € |
| Belaunak | 40 € | 35 € | 29 € | 24 € | 20 € | 15 € |
| Gizonezkoen sorbalda | 98 € | 92 € | 88 € | 82 € | 78 € | 70 € |
| Emakumezkoen sorbalda | 80 € | 76 € | 72 € | 68 € | 65 € | 59 € |
| Izterra | 155 € | 150 € | 145 € | 139 € | 134 € | 115 € |
| Sabelalde Lerroa | 59 € | 56 € | 54 € | 51 € | 49 € | 35 € |
| Behe ipur masaila | 69 € | 66 € | 64 € | 61 € | 59 € | 45 € |
| Erdi besoak | 99 € | 95 € | 90 € | 85 € | 80 € | 63 € |
| Goiko ezpainak | 33 € | 30 € | 28 € | 26 € | 23 € | 17 € |
| Patillak | 49 € | 46 € | 42 € | 38 € | 35 € | 30 € |
| Kokotsa | 39 € | 36 € | 33 € | 30 € | 28 € | 21 € |
| Masailak | 39 € | 37 € | 35 € | 33 € | 32 € | 24 € |
| Aurpegiaren lateralak | 77 € | 72 € | 67 € | 62 € | 57 € | 52 € |
| Belarriak | 32 € | 30 € | 27 € | 25 € | 23 € | 17 € |
| Lepo bentrala | 59 € | 56 € | 52 € | 48 € | 45 € | 40 € |
| Bizarra | 89 € | 83 € | 78 € | 73 € | 68 € | 59 € |
| Begitarteak | 22 € | 20 € | 19 € | 18 € | 16 € | 15 € |
| Denborazko zonaldea | 39 € | 37 € | 35 € | 32 € | 29 € | 26 € |
| Ezpain azpikoa | 22 € | 20 € | 19 € | 18 € | 16 € | 13 € |

% 40rainoko deskontuarekin eskertuko da laguntasuna

Zatoz lagunekin — Guztientzako deskontua




%25

%30

%35

%40

### FOTODEPILAZIOA

| | LEHEN | ORAIN |
|---|---|---|
| Goiko ezpaina | 33 € | 19 € |
| Kokotsa | 39 € | 29 € |
| Besapea | 63 € | 39 € |

### GAZTETZEKO

| Azal osorako | LEHEN | ORAIN |
|---|---|---|
| Tratamendua | | |
| Produktuen lotea<br>Complex Technology | 154'35 € | 119 € |

### ACNÉ ( COMPLEX PURENESS)

| | |
|---|---|
| Aurpegi osoa | 59 € |
| Masailaboak | 39 € |
| Kokotsa | 27 € |
| Kopeta | 30 € |
| Eskotea | 65 € |
| Zonalde puntualak | 18 € ( bakoitza) |
| 6 Zonalde puntual | 18€ ( bakoitza) |

Oharra : zenbait zonalde harturik 59 € baino gehiago baten badute, aurpegi osoaren kostua ezartzen da.

### REJUVENECIMIENTO ESSENCE COMPLEX

| | |
|---|---|
| Drainadura | 36 € |
| Gaztetzeko tratamendua | 89 € |
| Begi ingurunea | 49 € |
| (begitarte, begi ingurua eta bekainen goi-zonaldea) | |

### GOMENDATURIKO PRODUKTUAK

| | |
|---|---|
| Gel garbitzailea ( 200ml) | 8,15 € |
| Lozioa ( 200ml) | 8,15 € |
| Kremadun gela ( 50ml) | 17,65 € |
| Emultsio garbitzailea, deneralo hidratatzailea (200ml) | 8,25 € |
| Toniko garbitzailea, deneralo hidratatzailea (200 ml) | 8,25 € |
| Gaztetzeko krema | 48,85 € |
| ( azal normal eta sekuentzat, F.P. 15 - 50 ml) | |
| Gaztetzeko krema | 48,85 € |
| ( azal sekuentzat F.P. 15 - 50 ml) | |
| Gaztetzeko krema | 33,90 € |
| ( mota guztietako azalentzat, 50ml ) | |
| Mikroemultsioa ( 2x4 ml) | 8,65 € |

SUSTAPENA!!! (I.C.O.M. Xampua + litro egokitzailea) = % 30 deskontua

OTSAIL, MARTXO eta APIRILERAKO ESKAINTZA

# Ospitalean lagun egiteko inor ez duten gaixoentzako proiektua jarri dute martxan

### Debabarreneko Esperientzia Eskolako ikasleak boluntario bila dabiltza

Aurrerantzean, Mendaroko ospitalean lagun egiteko inortxo ez duten gaixoak ez dira hain bakarrik sentituko. Izan ere, Laguntzera izeneko proiektua sortu dute Debabarreneko Esperientzia Eskolako laugarren promozioko ikasleek.

Gaixo bakoitzaren egoera kontuan hartuta, gaixoei lagun egiteko asmoa du proiektuak. Boluntarioek, hortaz, hizketaldiak, paseotxoak edota irakurraldiak egingo dituzte gaixoekin.

Proiektua gauzatzeko boluntarioak behar direla azpimarratu dute sustatzaileek. Interesa duenak bidali dezala mezua *ikasteneibar@yahoo.es* helbidera.

Bestela sustatzaileekin aurrez aurre hitz egiteko aukera ere badago. Horretarako Eibarrera jo beharra dago, martitzen eta eguenetan (10:00-12:00) HHE-EPAko lokaletan (Armeria Eskola parean).




## Luperia demasa eragin du euriak Santa Ana ermitaren inguruetan

Orain dela egun batzuk izandako euri jasa handiek luperia eragin dute Santa Ana ermitaren inguruan. Harri zein lur mordoa jausi denez, bertaraino heltzeko bidea erabat kaltetuta gelditu da, eta konponketa neketsua izango da. Horrek guztiak zeresan ugari sortu du Mendaron, uztail amaierako jaia garrantzitsua delako Mendaron. Dena den, bada beste bide bat bertaraino iristeko.

## KZgunea, berriro zabalik

Otsailean KZgunea berriz ireki zuten, Eusko Jaurlaritzaren erabakiz. Ondorioz, Interneten nabigatu nahi duenak edota ikastaroren bat egin nahi duenak hara aukera izango du aurrerantzean.

Martxoan 9:00etatik 13:00etarako ordutegia izango du zentruak.

URKIDI
AHOLKULARITZA
Liberty Aseguruak
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

murrplastik
KABLEENTZAT KATEAK
IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
KABLEENTZAT PLAKAK
TUBOAK ETA ERRAKOREAK

## motz

# Haurtzaindegiko lanak hasi dira bizkotxoak egiteko lokal zaharrean



Haurtzaindegia eraikitzeko obrak hasi dira Garagartzan. Bizkotxoak egiteko lokal zaharrean eta Linazasoroko eskola zaharretan egingo dute.

Jaurlaritzaren eta Udalaren baimenak lortu ondoren, Astiaran SL enpresak jardungo du lanok egiten. Lanen aurrekontua 186.500 eurokoa da.

### Zubiaurrek eta Athleticek dirutza zor diote Realari

Athleticek eta Jokin Zubiaurre jokalari mendaroarrak 906.000 euro ordaindu beharko dizkiote Realari, interes modura, bost milioi euroko zorraren atzerapenak direla eta. Horixe ebatsi du epaileak.



### Vaucluseko azken etapan hirugarren izan zen Urain

Jokin Urain txirrindulari mendaroarrak hirugarren postua lortu zuen Vaucluseko Hiru Egunetako azken etapan. Orbeako txirrindulariak sprintean sartzean lortu zuen hirugarren postua. Sailkapen orokorrean 77. gelditu zen.

### Iker Maiora, Sevillako maratoian

Iker Maiora korrikalari mendaroarrak Sevillako maratoian parte hartu zuen, beste 4.000 korrikalarirekin batera. 2 ordu, 34 minutu eta 12 segundoko denbora egin zuen.

### David Rios eta Alain Ulazia, baba lehiaketan txapeldun

Mendaroko Gazte Asanbladak otsailean antolatutako baba lehiaketa irabazi zuten. Horixe erabaki zuen Andoni Egaña eta Amaia Agirre bertsolariek osatutako epaimahaiak.

### Nori Ushijima pintorearen erakusketa Urretxun

Nori Ushijima pintore japoniarrak Mendaroko herriarekin harremana estua du, hainbat lan han egin dituelako. Ushijimak bihar inauguratuko du koadro erakusketa Urretxuko Juan de Lizarazu aretoan eta hilaren 29ra arte izango da ikusteko egiteko aukera.







# Maala Records taldea, instrumentu taldeen lehiaketan dena emateko prest

## Bihar, zapatua, goizean eta arratsaldean egingo dituzte emanaldiak partehartzaileek




Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta, Elgoibarko Herria Instrumentu Taldeen Lehiaketa egingo dute bihar, zapatua. Gipuzkoa, Bizkai eta Arabatik etorritako 26 taldek hartuko dute parte, tartean Elgoibarko batek: Maala Records taldeak. Hamazazpi herritatik etorriko dira parte hartzaileak, eta hamazortzi musika eskoletako ordezkariak izango dira. Guztira, 195 ikasle arituko dira lehian.

Kontzertuak goizean eta arratsaldean egingo dituzte, eta sari banaketa 19:30ean izango da. Hiru mailatan banatuta ariko dira instrumentu taldeak: A kategorian 14 urte artera artekoak, B kategorian 18 urte bitartekoak, eta C kategorian 22 urtera arteko taldeek hartuko dute parte. Maala Records elgoibartarrak azken horretan hartuko du parte. 10:30ean hasiko da ekitaldia A kategoriako ikasleen emanaldiarekin. C kategoriakoek 12:15ean ekingo diote lanari, eta elgoibartarrek 12:30 inguruan hartuko dute parte. Inazio Bereziartua musika eskolako arduradunen esanetan, C kategoria maila oso altua dago: “Sei talde bakarrik dira, baina oso finkoak. Zaila izango da irabaztea, baina ahal den guztia egingo dugu. Elgoibartarrak ere onak dira”.

Arratsaldeko saioan B kategoriako taldeak arituko dira. Kategoria bakoitzeko sariez gain, antolatzaileek beste hiru sari berezi ere banatuko dituzte: talde bakoitzeko instrumentu ezberdintasunagatik 200 euro; konponketarik onena eskaintzen duen taldearentzako 200 euro; eta epaimahaiaren sari berezia, beste 200 euro.

Maala Records talde elgoibartarra C taldean ariko da biharko lehiaketan. Animoso ageri dira musikari gazteak, eta lehiaketan “dena emateko prest” daudela azaldu dute. “Eta saria eramateko prest ere bai”. Axel Jungbluthen *Strollin* abestia joko dute. Hona hemen taldea osatzen duten bederatzi musikarien izenak:

**Xabier Larrañaga (gitarra elektrikoa)**
**Pello Errasti (perkusioa)**
**Ivan Zapata (klarinetea)**
**Maria Ferreiro (gitarra baxua)**
**Asier Gurrutxaga (klarinetea)**
**Ander Osoro (tronboia)**
**Alberto Cardaba (saxofoi tenorea)**
**Xabier Lopez (saxofoi altua)**
**Mikel Arosa (tronpeta)**

# ‘Kika supersorgina’ antzezlanak magiaren munduan murgilduko ditu elgoibarko gaztetxoak

## Gaur nagusientzako hitzordua egongo da ‘Lentsa pero seguras’ antzezlanarekin

Hilaren 15ean, *Kika supersorgina* antzezlana ikusteko aukera egongo da Herriko Antzokian, 16:30ean hasita. Umeentzako antzezlan hori sorpresaz, magiaz eta umorez beteta dago, eta herriko txikienak magiaren munduan murgilduko ditu.

Kika supersorgina klasiko bihurtu da gazte literaturan. Knisterren pertsonaiek, orain, antzerkirako jauzia egin dute, eta antzerkiak berezkoa duen berezko magia gehitu zaie idazle alemaniarraren pertsonaiei.

Kika etxeko lanak egiten aspertuta dago, eta magia liburuari esker fantasiaren mundura igaroko da, ipuinetako hainbat pertsonaia xelebrerekin topo egiteko. Baina idazle maltzur bat ere agertuko da, eta gizon gaiztoaren azpijokoei aurre egin beharko die.



### Hiru emakumeren abenturak

Bestalde, gaur *Lentas pero seguras* antzezlana ikusi ahal izango da 22:15ean hasita. Hiru emakumeren arazoen berri ematen du Papel Higieninico konpainiak. Asteroko footing saioan ezagutuko dute elkar, eta hor sortuko da hiruren arteko harremana.

# Trinitate Jaietako nagusien danborradako entseguak hasiko dituzte maiatzaren 5ean



Trinitate Jaietako nagusien danborradan parte hartu nahi duten herritarrentzako entseguak hasiko dituzte l maiatzaren 5ean. Merkatu Plazako teilatupean izango da lehen saioa, 21:00etan hasita. Bertan, 2009 urteko danborradaren aurkezpena ere egingo dute.

Aurrez danborradan parte hartu izan dutenei eskutitza bidali diete aurtengo aurkezpena baieztatzeko. Baina jaso ez dutenek danborradako antolakuntza taldekoekin harremanetan jarri besterik ez dute egin behar.

Bestalde, danborradan inoiz parte hartu ez duten elgoibartarrek ere eman dezakete izena, entseguetara joan eta aurtengo jaietan danborra jo ahal izateko.

Harremanetan jarri nahi izanez gero, hona hemen kontakturako bi telefono zenbaki: 615 794 909 edo 656 711 011.

### Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du

Martxoaren 27an, barixakuan, Benito Lertxundi euskal musikari ezagunaren ahotsaz gozatu ahal izango da Herriko Antzokian. Oriotarraren emanaldia 22:15ean hasiko da. Sarrerak hilaren 16tik aurrera erosi ahal izango dira Kultur Etxean, 12 euroren truke.



# Ume-umetatik eskubaloian jokatzen hasteko eskola sortu du Sanlok

## Indar handia du eskubaloiak Elgoibarren: 11 talde daude, horietatik zazpi, neskenak



Eskubaloiak Elgoibarren indar handia duela gauza jakina da honezkero. Sanlo eskubaloi taldean 220 jokalari daude 11 taldetan banatuta. Ume-umetatik hasten dira baloiarekin jokatzen, baina hasierako adin hori aurreratzeko ordua iritsi dela uste izan dute Salokoek, eta Eskubaloi Eskola sortu dute hamar eta hamaika urte bitarteko jokalarientzat. Alebin maila osatuko dute neska eta mutil horiek.

### Gipuzkoako hirugarren eskola

Gipuzkoan sortu den hirugarren eskola da Elgoibarkoa: aurrez Irungo Bidasoak eta Zumaiako Pulpo taldeek zituzten. Domekan aurkeztu zuten Elgoibarkoa, baina kontuan eduki behar da denboraldi hasieratik ari direla gaztetxoekin entrenamenduak egiten.

Mutilen artean, normalena futbolean jotzea dela azaldu du elkarteko jarduneko presidente den Carlos Ayestak. "Mutilek normalean futbola aukeratzen dute hasieran, baina asko eskubaloira bueltatzen dira. Guk talde bat baino gehiago daukagu, eta ez da derrigorrezko mailarik izan behar. Umeek gustuko zerbait egiteko aukera edukitzen dute".

### Kalitate handiko taldeak

Nesken artean, ezberdina da: "Elgoibarren neska gehienek eskubaloian jokatzen dute. Saskibaloian talde bat atera berri dute, futbolean beste bat dago, baina eskubaloian, 11 taldetatik zazpi, neskenak dira", azpimarratu du Ayestak.

Baina kantitatez bakarrik ez, kalitatez ere, handia da Sanlo. "Oso maila ona erakusten dute eskubaloiko taldeek. Sari asko jaso zituzten joan den denboraldian, eta aurtengoan ere bide onean goaz".

11 talde horiek maila ezberdinetan antolatuta daude: senior, jubenil, kadete eta infantilek fitxa teknikoa daukate (167 jokalari guztira). "Alebinak ez daude federatuta, baina aurrekoei batuta, guztira 220 jokalari inguru ditugu klubean", azaldu du jarduneko presidenteak.

### Entrenatzaile beharrean

Jokalariak, beraz, ez dira falta Elgoibarren. Arazoa beste bat da: "Gaur egun, klubeko zuzendaritza batzordea osatzen dugun ia gehienok jokalarien gurasoak gara, baina ez dakigu entrenatzen. Entrenatzaile beharra dago, jendea falta zaigu. gainera, senior mailakoek jokatzeari uzten diotenean, ez dira geratzen entrenatzaile jarduteko; eskertzekoa izango litzateke, klubean jarraitzea umeei erakusten".

Klubean inplikatuta daudenak gutxi xamar izan arren, daudenak," oso inplikatuta" daudela ere azpimarratu nahi izan du Ayestak.

---



I. URTEURRENA

**MARIA ARRIZABALAGA BASTIDA**

2008ko martxoaren 19an hil zen, 90 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 21, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



# Hamabost elgoibartar lilaz jantzita antxintxika

Donostiako Lilatoian hartu dute parte joan den domekan



Joan den domekan, ospatu zen Emakumearen Nazioarteko Eguna, martxoaren 8an. Ekimen bereziak antolatu zituzten egun horretan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzeko: horietako bat, Donostiako Lilatoia. Elgoibarko hamabost emakume izan ziren domekako Lilatoian. Bost kilometroko ibilbide urbano eta lauan, Nerea Amilibia espezialista izan zen garaile (19:16). Horra hor elgoibartarren emaitzak.

## Sailkapena

20. Pilar Arriola ....................21:21
39. Lurdes San Martin....................22:46
85. Pilar Lama ....................24:35
103. Lore Bereziartua ....................25:03
179. Nerea Sanz ....................26:30
234. Saioa Iriondo ....................27:22
290. Agurtzane Arriola ....................28:04
291. Usoa Arriola ....................28:04
327. Nerea Salaberria ....................28:28
409. Nerea Cocera ....................29:16
490. Marian Arriola ....................30:04
518. Itziar Ibabe ....................30:19
559. Blanca Rodrigo ....................30:39
560. Cristina Arnaez ....................30:39
622. Eunate Aranzadi ....................31:13

## Markel Bergarak 2013ra arte luzatu du kontratua

Realarekin zuen kontratua lau urtez luzatu du Markel Bergara erdilari elgoibartarrak. 2013ko ekainaren 30era arte, beraz, talde txuri urdineko jokalaria izango da. Lehen Mailako taldeen eskaintzak ere jaso ditu Markelek, eta Realarekin negoziazioa luzea izan dela azaldu du. Azkenean, “oso gustura” agertu da “bizi guztiko tokian” jarraituko duelako.

# EMAITZAK

### ESKUBALOIA
San Adrian 22 – Tecnifuelle Elg. 20 (Seni.nesk.)
Zarautz 21 – Cometel Elgo. 25 (Jub.nesk.)
Aloña 12 – IMH Elgo. 26 (Kad.nes.)
Alkorta Elgo 26 – Ereintza 39 (Sen.mut.)
Pneumax Elgo. 30 – Zartz Euskalduna 38 (Kad.mut.)
Pulpo 22 – Astigarraga Elgo. 20 (Inf.nes.)
Aiala 16 – Aterpe Elgo. 11 (Inf.nes.)
Lili Elgo. 20 – Aloña 12 (Inf.nesk.)
Urnieta 29 – Bankoa Elgo. 23 (Inf.mut.)
Leizaran 40 – Txarriduna Elgo. 20 (Inf.mut.)

### FUTBOLA
Elgoibar 2 – Zarautz 1 (Haundi)
Eibartarrak 2 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Beti Ona 1 – Elgoibar 4 (Jub.)
Hernani 0 – Elgoibar 0 (Kad.)
Elgoibar 2 – Dunboa-Eguzki 0 (Inf.)
Elgoibar 3 – Urola 0 (Txik.)
Urola B 2 – Elgoibar 4 (Ale.)

### ARETO FUTBOLA
Allerru 2 – Kenci 3 (Nazional B)

### ESKU PILOTA
Behar Zana 22 – Lagunak (2) 9 (1. mail. nag.)
Oiarpe 22 – Lagunak 9 (2. mail. nag.)
Lagunak (2) 2 – Usurbil 22 (1. mail. jub.)
Lagunak 18 – Arrasate 22 (Jub.)

### SASKIBALOIA
Gabi 63 – Ordizia 55 (Nag.)
Anbolo 16 – Lizeotarrak 42 (Inf.)

# AGENDA

### SASKIBALOIA (Kiroldegian)
Zapatua, 14
13:00 Anbolo – Antiguo Luberri (Inf.)

### ESKU PILOTA (Ikastolan)
Barixakua, 13
22:00 Lagunak – Eibar (2. mail. nag.)

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)
Zapatua, 14
15:45 Kenci – Jarrilleros (Nazional B)

### FUTBOLA (Mintxetan)
Zapatua, 25
10:30 Elgoibar – Zarautz (Kad.)
16:30 Elgoibar – Lazkao (1. erreg.)
Domeka, 26
11:30 Elgoibar – Beasain (Ale.)
16:30 Elgoibar – Eibartarrak (Neskak)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)
Zapatua, 14
11:30 Txarriduna Elgo. – Arrasate (Inf. mut.)
17:30 Pneumax Elgo. – Euskalduna (Kad.mut)
19:00 Alkorta Elgo. – Ereintza (Sen. mut.)
Domeka, 15
09:30 Astigarraga Elgo. – Urnietako (Inf. nesk)
11:00 Bankoa Elgo. – Ereintza (Inf. mut.)
12:30 Ikus Elgo. – Egia (Kad. nesk)

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.
☎ 639020 180

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko prest eta garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 617 958 400

• Mutila galdaragintza edo soldaketa lanak edota garbiketa eta pintura lanetarako prest.
☎ 617 958 400

• Emakumea lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan. Orduka edo interna.
☎ 678 879 024

• Mutila lanerako prest, igeltseritzan, gidari gisa, komertzioan edota zamallanetan
☎ 660 213 652

• Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldez edo gauez. ☎ 646 821 678

• Emakumea, garbiketa lanak eta nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 649 212 944

• Emakumea lanerako prest. Ordutegi aukera desberdinekin. ☎ 617 056 828

• Emakumea, haurrak eskolara eraman eta handik etxera ekartzeko eta garbiketa lanka egiteko prest.
☎ 652 715 908 / 943 74 22 01

• Emakumea, garbiketa lanak edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ 696 246 962

• Emakumea, goizeko 9etatik 17etara garbiketa lanak egiteko prest, baita gauetan pertsona helduak zaintzeko prest ere. ☎943 53 19 03 / 665 414 801

• Erizain laguntzailea, pertsonak zaintzeko prest egongo litzateke. Esperientziarekin.
☎667 461 940

• Emakumea, nagusiak zaintzeko, haurrak zaintzeko edo portalak garbitzeko prest.
☎699 609 190

• Emakumea lanerako prest garbiketa lanetarako, sukaldari laguntzaile edo haurrak eta nagusiak zaintzen. Interna egoteko aukera edo orduka.
☎646 235 195 / 636 362 251

• Emakumea garbiketa lanetarako prest edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest.
☎680 808 125

• Neska gaztea lanerako eskaintzen da, arratsaldez edozein lan egiteko (etxeko lanak, garbiketak,...).
☎671 277 662

## ETXEBIZITZA

### SALGAI

• Etxebizitza salgai Arregitorren, egoera onean. Sukaldea, 3 logela, bi komun, egongela eta ganbara. 225.000 € (aukera ona).
☎ 696 266 982

### ALOKAGAI

• Benidorm. Apartamentua alokatzen da erdigunean, hondartzatik oso gertu eta egoera onean. Prezio paregabea.
☎ 943 74 06 28

## LOKALAK

• Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia
☎ 943 741 436

## MOTORRA

• Hyundai Furgoneta salgai. 7 eserleku. Erremolkerako bola dauka. 130.000 km. Beira tindatuak. 8.000eur o.
☎ 660 027 976

## BESTELAKOAK

• Elizako sarreran urrezko belarritako bat topatu zen lehengo astean. Deitu:
☎ 943 743 303

## OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta *15 euro* eta alokairua *10 euro*. Autoak *10 euro*. Eta bestelakoak *5 euro*. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

## MODULOAK

| Lana / Bestelakoak | Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra |
|---|---|
| *Astebete : 5 euro* | *Astebete : 10 euro* |
| *2 aste : 8 euro* | *2 aste : 17 euro* |
| *3 aste : 10 euro* | *3 aste : 25 euro* |



I. URTEURRENA

# MARIA LUISA GARATE PEÑA

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,*
*ez zaitugu inoiz galduko*
*gure bihotz barrenean*
*eramango zaitugu betiko.*



*2008ko martxoaren 17an hil zen. I.urteurreneko meza martitzenean, martxoaren 17an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



• Zorionak, **amatxo,** hilaren 9an urteak egin zenituelako. Muxu bat aita eta Ikerren partez.



• Zorionak **Xuban!!** Gaur 6 urte betetzen dituzulako. Familia guztiaren partez, bereziki anaia Aimarren partez.



• Zorionak, **Bixen!!** Urtebete handi bat! Muxu potolo asko gurasoen eta batez ere Oxelen partez.



• Zorionak, **Markel,** martxoaren 7an bi urte bete dituzulako. Etxekoen partez, bereziki gurasoen partez.



• Zorionak, **Dune,** atzo 5 urte bete zenituelako. Bost muxu potolo familia guztiaren partez.



• Zorionak, **aitatxo,** atzo urteak bete zenituelako. Muxu bat familiaren partez.



• Zorionak, **Unai** gaur 2 urte bete dituzulako. Muxu handi bat denon partez.



• Zorionak, **Unai** zure zazpigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen partez, bereziki Egoitzen partez.



• Zorionak, **Iker!** Igandean 5 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiaren partez eta bereziki anaia Jonen partez.



• Zorionak, **Maria Izagirre,** datorren eguenean 87 urte beteko dituzulako. Muxu bat zure lagunen partez.



• Azkenik iritsi da **Jon,** egun ona pasa dezazula familia guztiaren partez eta bereziki Gorkaren partez.



• Zorionak, **Danel,** hilaren 21ean 11 urte beteko dituzulako. Muxu bat familia guztiaren partez eta bereziki Nahiaren partez.



• Zorionak, **Rosiito!** Pipa asko jan eta hain xalada jarritzeko. Mendaroko neskok asko maite zaitugu. Muxutxoak.



• Zorionak, **Adei,** astelehenean bost urte bete zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Markel,** gaur lau urte betetzen dituzulako. Muxu bat Eritz eta etxekoen partez.



• Zorionak **Marina,** astelehenean urte bat egingo duzulako. Muxu haundi bat June, Naroa, Paula eta familiakoen partez.



• Zorionak **Haizea,** gaur hilak 13 bi urte betetzen dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez eta bereziki Joneren partez.



• Barixaku zoriontsu onetan ondo ospatu zure 11 urteak. Bihotzez famili osoaren, eta bereziki Josuren partez.



• Zorionak, **Ekain,** zure familiaren partez. Muxu asko.



• Zorionak **guapa,** 12an urtebetetzea izan zelako. Guraso, koinatu, ahizpa eta ilobaren partez.



• Zorionak **Markel** "Pototo" zure lehen urtebetetzean familia eta batez ere arreba Nalayaren partez.



• Zorionak, **Nekane,** bihar 10 urte betetzen dituzulako. Muxu bat familiaren eta Maialenen partez.



• **Idurre** eta **Ion,** iritzi da zuen eguna zoriontsu izetea opa dizuegu etxekoen partez.



• Zorinonak, **Ibai,** martxoaren 11n bi urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez!!

• Zorionak, **Juan,** eguaztenean urteak bete zenituelako. Muxu bat Mikel eta Oihanaren partez. Aupa Athletic!

## OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARRENeko bulegora edo *barren@elgoibarkoizarra.com* e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

## OKINDEGIA

15 domeka DOÑA MERCEDES
19 eguena EIZAGIRRE
22 domeka FOTERO

## FARMAZIAK

24 ORDUZ

| | |
|---|---|
| 13 Zabaleta | 21 Zabaleta |
| 14 Etxeberria *(E)* | **Goizez Etxeberria (S.A)* |
| **15** Etxeberria *(E)* | **22** Zabaleta |
| 16 Ibañez | 23 Etxeberria *(E)* |
| 17 Garitaonaindia | 24 Ibañez |
| 18 Etxeberria *(S.A)* | 25 Garitaonaindia |
| **19** Garitaonaindia | 26 Etxeberria *(S.A)* |
| 20 Yudego | 27 Fernandez |

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:




Egin klik

## 13 barixakua

### Tailerra
18:00 Autodefentsa
Emakumeentzako autodefentsa tailerra egingo dute. Kiroldegian.

### Erakusketa
19:00 Margo erakusketa
Udane Juaristik margo erakusketa irekiko du. Hilaren 29ra arte egongo da ikusgai.

### Antzerkia
22:15 'Lentas pero seguras'
*Papel Higiénico* taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

## 14 zapatua

### Musika
10:00 Instrumentu taldeen lehiaketa
Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, Elgoibarko Herria instrumentu taldeen lehiaketa izango da bihar. Musika Eskolako auditorioan.

### Tailerra
10:00 Komunikazio tailerra
Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 15 domeka

### Kirola
10:00 Mendi irteera
Ikastolako gurasoek antolatuta, Urkulura egingo dute irteera.

### Elizkizuna
11:30 Misioen eguna
Euskal Elizbarrutietako Misioen Eguna ere gogoratuko da meza horretan. San Bartolome parrokian.

### Antzerkia
16:30 'Kika supersorgina'
Ambigu teatroak aurkeztuta, umeentzako antzerkia izango da. Herriko Antzokian.

## 17 martitzena

### Ekitaldia
9:15 Zuhaitz eguna
Pilar ikastetxea, Herri eskola eta Ikastolako ikasleek haritzak landatuko dituzte Albitxuri-Urruzuno inguruan.

### Hitzaldia
19:00 'Pertsonen eskubideak babesteko bermea'
San Lazaro egoitzak eta Ongizate Sailak antolatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



### LUDOTEKAKO EKINTZAK

**MARTXOAREN 18AN
MAILEGU ZERBITZUA
JARRIKO DUGU MARTXAN!**

**ERABILTZAILEEK JOSTAILU BAT
ETXERA ERAMATEKO AUKERA
IZANGO DUTE**

### GAZTELEKUKO EKINTZAK

**DOMEKA HONETAN
XOXOTERA JOANGO
GARA EGUN PASA,
PARRILLA ETA GUZTI!
ETA ZU, ZERGATIK EZ?**




**«Una familia con clase»**
14, zapatua: 19:00/22:15
15, domeka: 19:00
16, astelehena: 21:30

**«Siete almas»**
19, eguena: 19:00
20, barixakua: 22:15
21, zapatua: 19:00/22:15
22, domeka: 19:00
23, astelehena: 21:30

**«Una amistad inolvidable»**
22, domeka: 16:30

## 18 eguaztena

**Aurkezpena**
19:00 **Gazte mendi martxa**
Egitasmoaren aurkezpena egingo dute, Gaztetxean.

## 26 eguena

**Hitzaldia**
20:00 **Ostegun bidaiariak**
*'Ama Afrika'* izeneko emanaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 27 barixakua

**Hitzaldia**
19:00 **Ikastolako jaialdia**
LHko ikasleen jaialdia, Ikastolako frontoian.

**Musika**
22:15 **Benito Lertxundi**
Euskara Sailak antolatuta, kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

# Zerikasi

## IKASTAROAK

**Jabekuntzarako estrategiak**

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-05-04
Non: Elgoibarren
Izenematea: Pitxintxu dendan

**Umeentzako igeriketa**

Norentzat: Hiru eta lau urteko umeentzako
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiera data: 2009-03-27
Non: Elgoibarren
Izenematea: 943 744 415

**Sorospen ikastaroa**

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
Hasiera data: 2009-03-07
Non: Mutrikun
Izena emateko: 943 464 622

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
***www.zerikasi.com edo 943 74 82 71***

## OHARRA

**SAN JOSE EGUNEKO JAI ZUBIA DELA-ETA, DATORREN BARIXAKUAN EZ DUGU BARRENIK KALERATUKO. HURRENGO ALEA MARTXOAREN 27AN JASOKO DUZUE**






EGUNA: Martxoak 27, ostirala
ORDUA: 22:15
TOKIA: Elgoibarko Herriko Antzokia
PREZIOA: 12 euro

Sarrerak aurrez erosteko aukera martxoaren 16tik aurrera, Kultur Etxean, goizez, Euskara Sailean, eta arratsaldez, Gazte Informazio bulegoan.

Elgoibarko Udala — Gipuzkoako Foru Aldundia — Eusko Jaurlaritza

## Gure berbak

### Aditz trinkuak: JARDUN aditza

Gaurkuan JARDUN aditzaren gaiñian jardungo dogu. "Jardungo dogu" esan dot, bai; horrek esan nahi dau Elgoibarren aditz trantsitibua dala, iragankorra: beste era batera esateko, DU erakua; beste zenbait lekutan DA erakua dan bezela (jardun gara).

- Hauek dira JARDUN aditzaren formak oraiñaldixan:
- **Neutrua:** *nik dihardut, harék dihardu, guk dihardugu, zuk diharduzu, zuek dihardue, hárek dihardue.*
- **Alokutiboa** (giz.): *nik jiharduat, hik dihardukk, harék jihardukk, guk jiharduau, hárek jiharduek.*
- **Alokutiboa** (emak.): *nik jihardunat, hik dihardun, harék jihardun,guk jiohardunau, hárek jihardune.*

- Hona JARDUN aditzaren formak iraganian:
- **Neutrua:** *nik niharduan, harék ziharduan, hárek ziharduen.*
- **Alokutiboa** (giz.): *harék jiharduan, hárek jiharduen.*
- **Alokutiboa** (emak.): *harék jihardunan, hárek jihardunen.*

Beste zenbait aditzekin bezela, *jardun*-ekin ere ez dira forma guztiak erabiltzen: hau ere aditz defektibua da, iraganeko erabilleran behintzat. Iraganian, forma trinkua erabili biharrean, forma perifrastikuetara jo izan dau hiztunak: *jardun jonagu, jardun jone...* Edota, bestela, beste aditz batzuetara: *lanian jabik, lanian daok,* eta abar, *lanian jiharduk*-en ordez. Hona adibide pare bat:

- *Lehenago han ziharduen langilliak soldau jun zittuan asko.*
- *Entierro baten izen giñuazen, eta txikito batera sartu nitzuan ni taberna batera, eta han jiharduan, erderaz bera.*

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1974

Aste honetako erretratu zaharra Galizian aterata dago. Elgoibarko neska horiek senideak dituzte Galizian, eta sarri joaten ziren garai hartan udako oporrak pasatzera. Vigoko Samil hondartzan aterata dago erretratua. Ikus dezagun zein diren neska horiek, ezkerretik eskumara: Mila Sanchez, Nives Cid eta Conchi Cid.





ESKERTZA

## ANICETO ANSOLA ARRIETA

*"Azkube"*

2009ko martxoaren 6an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# Joseba
JATETXEA

FLOREAGA Jauregia

Aizkibel, 10 · AZKOITIA
Tel. 943 85 34 12
e-posta: *josebajatetxea@hotmail.com*
*www.josebajatetxea.com*



Euskal arkitekturako eraikin nagusienetakoan,

**ezkontzak berezia izan behar duelako**



XVI. mendeko jauregi gotikoan paregabeko paisaia batean, gaur egungo joerei erreparatzen dien kalitatezko euskal sukaldaritza klasikoaz gozatzeko aukera ematen dute




250 lagunentzako jantokia,
ospakizun handietarako aproposa.
Bestetik, bi jantoki: 80 lagunentzako bata,
eta bestea erreserbatua, 20 lagunentzat.
Luntx-erako terraza aproposa.

TERRAZA HANDIA DANTZARAKO
ETA KOKTELETARAKO



2 suite jakuzziarekin
4 gela hidromasajearekin
Helbarrituentzat egokitutako gela

WI-FIA doan eraikuntza osoan

250 lagunentzako aretoa
Era guztietako ospakizunak

Gela bikoitza (denboraldi ertaina): 60€
Eguneko menua: 20€
Karta: 36€



Krabelin
HOTELA-JATETXEA

Tel: 943 202 727 - Faxa: 943 208 991
Arrate auzoa, z/g
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

ESKAINTZA ASTEBURU ZORIONTSUA
2 gau, 2 afari eta
2 gosarirekin
2 pertsonentzat
150 € + %7 BEZ



E-maila: conecta@hotelkrabelin.com

www.hotelkrabelin.com